



**CRISTINA
GONZÁLEZ**

ÁLAVA-ARABA
**ZUREKIN
CONTIGO**

**Arabako PSE-EEren Hauteskunde Programa
2023ko Foru Hauteskundeak**

**#Araba/ÁlavaZurekin
#Araba/ÁlavaContigo**

ETORKIZUNERAKO PREST	2
ARABA, PERTSONEKIN ENGAIA TUTA.....	4
Geu hobeto zaintzeko.....	5
Araba solidario eta inklusiboa.....	11
Araba feminista eta aniztuna.....	13
Genero-indarkeriaren kontrako borroka	16
ARABA, PLANETAREKIN ENGAIA TUTA	17
Hobeto hazi	17
Tokiko Komunitate Energetikoak. Energia-eskuragarritasunaren demokratizazioa.....	20
Uraren Kudeaketa Integralerako Foru Hitzarmena Araban	21
Mugikortasun jasangarria. Foru garraio publikoa	23
Arabaren etorkizuneko lehen sektore iraunkor baten alde.....	24
ARABA, INDUSTRIAREKIN ETA KALITATEKO ENPLEGUAREKIN ENGAIA TUTA... 29	29
Industriaren eraldaketarako laguntza	29
Azpiegitura industrialak hobetzea	30
Araba logistika-nodoa: kalitateko enplegurako abagunea	31
Arabako Errioxako ardoarentzako prestigioa eta kalitatea.....	32
Arabako Errepide Sarea modernizatu eta hobetzea	32
Hurbileko merkataritza eta kontsumo-ohitura berriak	36
Hurbileko dendentzako laguntza.....	37
Turismoa eta aisialdia, arabar motor ekonomiko berriak.....	38
ARABA, KULTURAREKIN ENGAIA TUTA.....	40
Iradier Arena: kultur apustu anbiziotsua	41
Araba, Kultur Jomuga 365 egunetan	43
Arabar kultur ondarearentzako ikuspegi zabala	44
Araba, Kirolaren lurralde.....	45
Emakumezkoen kirola bultzatzen	47
Gazteentzako ekintzak	48
ARABA, LURRALDEAREKIN ENGAIA TUTA	50
Araba, zugandik hurbil.....	51
ARABA, BERDINTASUNAREKIN ENGAIA TUTA	54
XXI. menderako zerga-sistema bat	55

ETORKIZUNERAKO PREST

ETORKIZUNERAKO PREST zure arreta eskatzeko baino zerbait gehiago da. Konpromiso bat da bizi dugun eraldaketa-giroarekin, lan egiteko modu bat da, bihar eta etzi jazoko dena gerta nahi dugunaren ahalik antzekoena izan dadin.

Politikak balio du espazio publikoan bizikidetza antolatzeke, pertsona guztiontzako bizi-baldintza duinak prestatzeko, berdintasunerantz urratsak emateko, justizia soziala babesteko.

Kontrakorako ere balio dezake, eskuinaren ideia eta praktika politikoarekin gertatzen den moduan.

Alderdi Sozialistan berdintasunaren alde ari gara. Desberdintasunak, egon, badaudelako eta euren askatasunetik hori areagotzea nahi dutenak badaudelako. Aberastasuna hobeto banatzearen egiten dugu lan, guztion artean sortu bai, baina ez dugulako neurri berean gozatzen horretaz. Justizia sozialaren alde egiten dugu lan, pertsona guztiek aukera berdinak merezi dituztelako euren hezkuntza eta prestakuntza bermaturik izateko, eta osasunerako, enplegurako, erretiro pentsiorako, kulturarako edo behar direnean bizitzeko baliabideak eskaintzen dizkiguten prestazio sozialen eskubideak izateko.

Sozialistek klimaren aldaketari aurrea hartzearen egiten dugu lan. Natura babesteko, trantsizio energetiko garbi eta eraginkor bati heltzeko eta autonomia eskaintzen diguten iturrietan urratsak emateko. Bakearen eta gerra eta jazarpena pairatzen dutenekiko elkartasunaren alde egiten dugu. Genero-indarkeria desagertzearen eta beste hamaika gauzaren alde.

Eta zeregin guzti horien dimentsioa nolana hikoia ez izan arren, Lurralde bakoitzetik parte hartzen badugu eta ezaugarritzen gaituen asmo aurrerakoiarekin egiten badugu bakarrik gauzatu ahalko dira.

Huteskunde programa hau, konpromiso multzo hau, hots, datozen lau urteei begira gauzatu nahi dugun Arabaren marrazki hau, halaber, amaitzearen dugun legegintzaldian zehar herritar askok eskatu izan digutenaren hein handia da.

Horregatik, programa oso partekatua da, pertsona askoren parte-hartze, aldarri eta bultzadarekin xehetasunez landurikoa.

Eguneroko errealitatean egiaztaturik den nahi batean ehundutako programa bat da, erakunde publikoei baliagarritasuna, pertsoneri hurbiltasuna eta gobernantzari egonkortasuna eman nahi dion nahi batean, alegia, jakiteko batzen eta jakiteko elkarrizketa eta adostasuna identitate-ikur eta pluraltasunarekiko errespetuaren eta ezberdinen arteko elkarbizitzaren adierazpide bihurtzen.

Sozialistok gara nahiak eta errealitatea elkartzen dituen ezkerreko pertsonen behar ezberdinentzat emaitza zehatz bat lortzeko. Ezker ameslari eta pragmatikoa. Europan, Espainian, Euskadin zein Araban garai oso zailetan politika aurrerakoenak gidatzen aritu izan den ezkerreko; garai oso zailetan, zinez, pandemia, Ukrainako gerra, lehengai eskasiaren ondorioak eta energiaren espekulazioak eragindako inflazioa bizitzea egokitu izan zaigulako.

Aurrean ditugun erronkei heltzeko prest egongo den Araba bat nahi dugu. Eta hori gidatzeko prest gaude.

Zure babesarekin, zure kritikarekin eta zure ideiekin egin nahi dugu; gizarte federalista, aurrerakoi eta feministaren eredu honekin egin nahi dugu.

ZUREKIN EGIN NAHI DUGU!

ARABA, PERTSONEKIN ENGAIATUTA

Alderdi Sozialistak eginkizun garrantzitsua burutzen du maila guztietako erakundeetan pertsonen arreta hobetzeko, Europatik hasi eta Espainiako Gobernuraino, tartean udaletakoak, erkidetakoak eta, halaber, foru erakundeak direla, apustu irmoa eginez legegintzaldi honen hasieran pentsaezinak ziren testuinguru batzuetan arretako eta babeserako zerbitzu publikoak bermatzeko, sendotzeko eta indartzeko.

Mundu osoan zabaldutako pandemia, eta osasunean eta ekonomian horrek ekarri izan dituen ondorioak; Putinek Ukrainari egindako erasoak, eta ondoriozko lehengai eskasiarekin eta inflazioaren gorakadarekin energiaren prezio igoerak ekarri duen hondamendi humanitarioarekin eta gerratik ihesean diren migrazio-mugimenduarekin batera, larrialdiko neurriak hartu beharra ekarri du erakunde guztietan, eta familiei eta enpresei laguntzeko gastu publikoa igotzeko politikak jarri izan dira martxan Europar Batasunetik.

Premiazko politika publiko horiek egiturazko politikekin batera etorri dira erronka demografikoa bezalako arazoei aurre egiteko, arreta handiago eta hobeagoa eskainiz urrakortasun handiagoan egon ohi direnei, hots, mendekotasuna dutenei.

Arabako Alderdi Sozialistan geure egin genuen susperraldi ekonomiko eta soziala gidatzeko eta etorkizunera moldatzeko premiazkoak zaizkigun erreforma handiak arrakastaz garatzeko erronka. Horien artean, pertsona erdigunean jartzen duen zainketa-eredu berri bat. Ongizatea eta bizi-kalitatea pertsona guztien eskura egon behar duten ondasun sozialak dira.

Egoera ezin hobean gaude konpromiso hori aurrera eramateko, sozialistek badakigulako kudeatzen eta gidatu egin nahi ditugulako pertsona guztientzako eta bitzita osorako izango diren gizarte-zerbitzu hobetu batzuk.

Susperraldi soziala gidatzeko, sozialistek konpromisoa hartzen dugu gizarte inklusibo, kohesiozko eta solidario baten alde, pertsonen eta pertsonentzako gizarte baten alde lan egiteko.

Geu hobeto zaintzeko

COVID-19aren pandemiak agerian utzi du zainketek duten garrantzia gizarte berdinzaleago eta iraunkorrago bat bermatzeko, eta eztabaida publiko eta sozialaren erdian jarri izan da garrantzi hori, nabarmen geratu delarik zainketen eredu tradizionalak bizi duen krisia, familia eremuan eman izan diren eta ordaindu gabeko edo profesionala ez den zainketa-lan horrek aintzatespen eta aitortza sozial urria jaso izan duelako.

Sozialistek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bat aldeztu dugu, irmo aldeztu ere, erantzukizun publikoko sistema unibertsal bat izan dadin, herritarrei bermatuko diena horrako aukera, eskubide subjektibo gisa.

Gure Zerbitzu Sistema funtsezko tresna da familia eta komunitate mailako harremanetan pertsonen autonomia eta ahalduntzea sustatzeko.

Euskal Sistema horren barruan, Arabako Foru Aldundiak eragile nagusi gisa zerbitzuak emateko duen eginkizun horretan, berdintasuna eta gizarte-kohesioa bermatuko dituen zainketa-eredu berri baterantz bidea egitea du erronka behinenetako bat.

Pertsona erdigunean jarriko duen arreta-eredu baterako trantsizioa egin nahi dugu, zainketen arreta eta ikuspegi emozionala ere barne hartuko dituen; arreta indibidualizatuagoa, nonbait, komunitatea pixkanaka zeregin horretan engaiatuko duen sistema bateranzkoa, zainketen lana profesionalizatu eta aintzatetsita.

Guzti horretarako, sozialistek konpromisoa hartzen dugu Arabako Foru Aldundian dugun erantzukizunez hauxe egiteko:

Mendekotasuna duten pertsonak

1. Mendekotasuna baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzuak indartu egingo ditugu, baloraziorako eta prestazioa aukeratzeko izapideen epea murriztearren.
2. Laguntzaile pertsonalak kontratatze baliabideak handitu egingo ditugu, laguntzaile pertsonala izateko trebakuntza profesionala lortzeko prestakuntza bultzatuz aldi berean, ikastaro horiek profesional gehienek libre dituzten ordutegietara moldatuta.
3. Zaintzaile profesionalentzako eta ez-profesionalentzako etengabeko prestakuntza-programak sustatuko ditugu.
4. Bakarrik edo beste adineko batzuekin bizi diren 80 urtetik gorako pertsonentzako programa berezi bat bultzatuko dugu, arreta eta akonpainamendurako programak sustatuz gizarte-laguntzaileek egiten duten jarraipenarekin eta nahi gabeko bakardadea borrokatze programekin batera.
5. Plaza gehiago eskainiko ditugu egoitzetan, arreta berezia eskainiz behar psikogeriatrikoei, itxaron zerrendak murrizten laguntzeko.
6. Areagotu egingo dugu egoitzen eta eguneko zentroen funtzionamenduaren gaineko kontrola, erabiltzaileenganako arreta hobea bermatzeko eta egoitza pribatuak kudeatzen dituzten erakundeen eta erabiltzaileen arteko kontratuetan gehiegizko klausularik egon ez dadin zaintzeko.

7. Mendekotasuneko pertsonen zaintzaileentzako Atsedeen Zerbitzuak hedatu egingo ditugu.
8. Aldi baterako egonaldiak prestatuko ditugu egoitzetan, eguneko zentroetan eta gaueko zentroetan, etxean bertan zainketak jasotzeko aukerari gehituz, ohiko zaintzaileek atsedena hartzeko eta beren osatze eta garapen pertsonalerako denbora izan dezaten.
9. Pertsonak euren etxetan eta ingurune hurbilenean ahalik denbora gehien eta ahalik era autonomoan bizitzeko programa eta zerbitzuak garatuko ditugu.

Desgaitasuna duten pertsonak

Bizi-kalitatea hobetzera eta norberaren autonomia, bizitza independentea eta gizarteratzea sustatzera zuzendutako programa berri batzuk garatzearen alde gaude. Horretarako:

1. Ohe gehiago sortuko ditugu egoitzetan desgaitasuna duten pertsonentzat, bai epe luzerako direnentzat, bai atsedeen hartzeko direnentzat.
2. Plaza gehiago jarriko ditugu eguneko zentroetan eta zentro okupazionaletan desgaitasuna edo buruko gaixotasuna duten pertsonentzat, dagoen eskariari erantzuteko.
3. Bizitza independentean laguntzeko zerbitzuak sustatu eta zabalduko ditugu, desgaitasuna duten pertsonen laguntza-, tutoretza- eta akonpainamendu-programak eskainiz bakarrik, bikotekidearekin edo beste pertsona batzuekin bizitzen jartzeko jauzia ematen dutenentzat.
4. Arreta goiztiarreko 0 eta 6 urte bitarteko haurrek esku-hartze sozialaren premian direnean erantzuteko behar diren baliabideak eskainiko ditugu.
5. Aisialdiko eta denbora libreko programa inklusiboak garatuko ditugu, arreta berezia eskainita naturarekin den harremanari, Mendi Solidarioak bezalako elkarten edo beste kirol elkarte eta klub batzuen bidez.
6. Landagunetan garraio egokitua egon dadin inbertsio publikoa bultzatuko dugu, ohiko jarduerak egiterakoan eta aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko pertsonen autonomia errazteko.

7. Euren autonomia erraztera eta hobetzera zuzendutako produktueterako laguntza ekonomikoak handitu egingo ditugu.

Adingabe zaurgarriak

Adingabearen interes nagusia beti kontuan izanez, Arabako Foru Aldundiak bere eskumenen artean du haurren eta gazteen eskubideak babesteko eta euren beharrak beteta egongo diren ingurune seguru eta egonkorra eskaintzeko eginkizuna. Horretarako:

1. Indartu egingo dugu 0 urtetik 6 urtera bitarteko haurren arreta goiztiarreko programa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin elkarlanean.
2. Hezkuntza-programak indartu egingo ditugu eta adingabeen arretarako zentroetako instalazioak ikuskatuko ditugu.
3. Tratu txarrak, abandonua, esplotazioa eta sexu-abusua jasateko arriskuan diren adingabeentzako familiarekin esku-hartze psikosoziala eta terapeutikoa bultzatuko dugu, eta Adingabearen Kontseiluak egiten dituen esku-hartzeak hobetzeko neurriak ezarriko ditugu.
4. Modernizatuko egingo ditugu jokabide-arazo larriak, berdinekin eta familiarekin indarkeriako jokabideak eta delitu aurretiko edota delituzko jokabideak dituzten adingabeei eta nerabeei arreta emateko programak.
5. Familientzako laguntza indartu egingo dugu adingabeei ingurune seguruak eskaintzeko eta ahal den neurrian euren etxeetan izaten saiatzeko.
6. Bakarrik dauden atzerritar adingabeentzako arreta-programak indartuko ditugu, eta adingabeen zentroetako protokoloak berrikusi egingo ditugu horien gizarteratzea hala nola hezkuntza-integrazioa hobetzeko eta adingabeei eta epe ertainera lana izateko helburuarekin euren prestakuntza arautuarekin jarraitzen duten adin nagusikoei babes integrala eskaintzeko.
7. Konpromisoa hartzen dugu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin batera adingabeen arretarako gizarte- eta osasun-baliabide espezializatu bat sortzeko adingabe horiek profil mistoak agertzen dituztenean, drogen kontsumoagatik, jokabide-nahasmendu larriengatik eta, halaber, gaixotasun mentalagatik edota desgaitasunagatik.

Osasun mentala

ELGAren txosten baten arabera, langabezia direnen eta ziurgabetasun finantzarioa bizi dutenen osasun mentala okerragoa zen biztanle arrunten aldean. Joera hori pandemia aurretik zetorren, baina, dirudienez, pandemiarekin areagotu egin da zenbait kasutan. Txosten horrek, halaber, dio 2020ko martxotik aurrera igo egin zela antsietatearen eta depresioaren prebalentzia.

Krisi honek buruko osasunean sortutako osasun mentaleko arazoaren areagotzeak oraindik ageriagoan utzi du osasun mentalerako arreta indartzeko beharra, eta funtsezko ardatzetako bat izatera heldu da Osasun Sistema Nazionalaren erreforma egiteko planetan. Gauzak horrela, Espainiako Gobernuak baliabide gehiago bideratu ditu langile gehiago izateko eta gaixotasun mota hori duten pertsonentzat estrategia integral bat prestatzeko.

Araban, gaixotasun mentalari aurrea hartzen lagundu nahi dugu, hori hautemanetz eta gaixoei lagunduz.

1. Arreta mentala hobetzea eta indartzea proposatzen dugu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin batera koordinatuta, eta prebentzio-programak jorratzea eta dauden baliabideei buruzko ezagutza eskainiko duen gida bat egitea.
2. Gaixotasun mentalak duen estigma ezabatzeko kanpainak egingo ditugu, eta mota horretako gaixoentzako laguntza bidezko laneratzea bultzatzen duten programak lantzen jarraituko dugu.
3. Nerabeek droga kontsumitzeko joerari aurrea hartzeko lanean segituko dugu.
4. Laneratze programak bultzatuko ditugu tutoretza bidezko lantokietan.

Suizidioaren prebentzioa

Gure herrialdean, suizidioa da kanpoko lehen heriotza-kausa, eta gazteen artean lehen heriotza-kausa. Gure herrialdeko erakunde nagusiak neurriak hartuz doaz errealitate horrek lehentasuneko toki bat izan dezan osasun mentalari buruzko politiketan eta Agenda Publikoan tokia izan dezan, helburu hirukoitz batekin: horri ikusgarritasuna ematea, errealitate horren inguruan dauden estigma eta tabuei amaiera ematea, eta horren gainean urteetan zama astuna izatera heldu izan diren isiltasunei amaiera ematea.

Foru Aldundiak ahaleginak batu ditzala nahi dugu gure lurraldean suizidioak prebenitzeko. Horretarako, konpromisoa hartzen dugu honetarako:

1. Gaixotasun mentala diagnostikatuta dutenekin lan egiten duten elkarte eta enprekin kolaboratzeko, suizidioen prebentzioari arreta berezia eskaintzeko.
2. Araban aurrez aurreko edo telefono bidezko sistema bat eratzea bultzatzeko, erabiltzaileei entzun eta adierazitako espezialistengana bideratuko duena, depresioak, bakardadea, euren arazoei konponbidea jartzeko suizidioan pentsaraztera eramaten duten gaixotasun mental bat edo beste edozein premia gainditzeko.
3. 024 telefonoa ezagutzera emateko suizidioak saihesteko kanpaina zehatzen bidez.
4. Osasun Sailarekin elkarlanean aritzeko farmazietan, ikastetxeetan, banku-erakundeetan edo lantokietan suizidioan pentsaraztera eraman dezaketen jokabiderik ikusiz gero horiek jakinarazteko.
5. Biztanleengan, oro har, eta urrakortasun egoeran diren kolektiboengan, bereziki, suizidiorako arriskuaren identifikazioa eta konponbidea txertatzeko Arabako Foru Aldundiaren mendeko gizarte-zerbitzuen sistemaren jardueraprotokoloetan.

Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka

Gizarte-inklusioaren alde egingo dugu lan. Horretarako, hauxe egiteko konpromisoa hartzen dugu:

1. Gizarte bazterkeriaren Balorazio eta Diagnostiko Zerbitzuak indartzeko arrisku-egoerak identifikatu ahal izateko, kasu bakoitza aztertu eta pertsonak baliabide egokienetara bideratzeko, pertsona edota familia bakoitzarentzako plan indibidualak eskainiz.
2. Gizarte Larrialdien Koordinaziorako Zerbitzuaren eginkizuna sendotzeko, Lurralde osorako erreferente hurbil gisa.
3. Pertsona horien gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko prestakuntza eta lan arloan akonpainamendua eskainita, enprekin ere lankidetzaz hitzarmenak lotuz horretarako.
4. Larrialdiko plazak prestatzeko behar bereziak dituzten pertsonentzat, horiek jokabide-nahasmenduak dituztenean edo ospitalean alta hartu eta osatzeko laguntza behar dutenean edo abstinenzia sindromearekin direnean.
5. Etxerik ez izatea borrokatzeko erakunde arteko lankidetzarako bideak gaituko ditugu.

Araba solidario eta inklusiboa

Araban, kanpoko migratzaileen populazioa guztizkoaren %8,5 izatera heldu da. Bigarren migrazio-fase batean gaude orain, migratzaileen egonkortzean, alegia, izan nazionalitatea dutelako, izan bizileku-baimena edo lana dutelako. Gauzak horrela, migratzaile gehienek kualifikazio gutxiena eskatzen den lanetan aritzen dira, prestakuntza izanagatik ere, eta horrek isolamendua eta gizarteratzeko zailtasuna eragin dezake, etorkizunean arrisku bihurtzeko daitekeelarik bizikidetzarako, talentuaren kalterako izateaz gain.

Etorkizunean elkarren artean berdintasunean bizitzeko, gako izango da nolako integrazio-politikak prestatzen ditugun, zer neurri hartzen ditugun ezberdina dena ezagutzeko, migratzaileek gure ohiturei buruzko ezagutzarako, hezkuntza-sistema batean nola integratzen diren eta bizitzan zehar nola joango diren trebatzen jakiteko.

Une honetan, gainera, exodo masibo bat dugu Europan gerran dagoen herrialde batetik, Ukrainatik, eta Europar Batasunak bizitzak salbatzeko harrera-zerbitzu bat prestatzeko premia du oraintxe bertan.

Horregatik, Arabako Foru Aldunditik elkarlanean arituko gara integrazio arloan eskumena duten gainerako erakundeekin, eta, horrez gain, hauxe egiteko konpromisoa hartzen dugu:

1. Prestakuntza-ibilbide batzuk jartzeko kualifikazio gutxiko pertsonentzat eta, halaber, prestakuntza izan arren euren tituluak homologatzen ez zaizkienentzat.
2. Gerran diren herrialdeetatik ihesi datozeinei edo jazarpen politikoagatik bizitza arriskuen izanik asilo bila datozen pertsoneri harrera emateko. Errefuxiatuen Zentroarekin kolaboratzeko erabiltzaileak integratzen, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Espainiako Gobernuarekin elkarlanean arituta.
3. Legez kanpoko migrazioaren kontra borrokan kolaboratzeko eta nazioarteko lankidetzak zabaltzeko, migrazio-tasa handieneko herrialdeetako bizi-kalitatea hobetzearen.

Araba feminista eta aniztuna

Arabaren “genero-berdintasunaren alde” lelo historikoak emakumeentzako bizitza eta elkarbizitza espazio bat izan behar du; askatasunaren, segurtasunaren eta duintasunaren espazio bat. Horrek esan nahi du indarkeria matxista desagertzea, horri buruz sentsibilizatzea eta biktimei eta bizirauleei babesa, laguntza eta ahalduntzea eskaintzea. Arabako Foru Aldundiak zerizaneko betekizuna du, oro har, herritar guztien eta, baiki, herritar horien erdia baino gehiago osatzen dutenen, hots, emakumeen, eskubideak bermatzeko

Emakumeek jasaten dituzten diskriminazio, zapalkuntza eta indarkeriak sistema patriarkal, androzentriko eta heterozisnormatibo baten ondorio dira, eta hori euskarrizten duten botere-egituren ondorio. Desberdintasuna egiturazkoa da, ez da bakarrik politikoa edo lege aldetikoa. Horregatik, benetako berdintasunaren aldarrikapen feminista da, hain zuzen, gure Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal nola benetakoa lortzeko beharrezko baldintza politikoen bermea.

PSE-EEen konpromiso argi eta garbia dugu emakumeen eskubideak aldeztearekin eta lortutako aurrerapenak finkatu eta sendotzearekin, horiek ezabatu nahi dituzten posizionamendu politikoen aurrean, eta ekitatearen beharra berresten dugu gure Lurraldean berdintasuna lortzeko eta emakumeenganako indarkeria desagertzeko.

Interseksionalitateari buruzko kontzeptuak, egiazki, diskriminazio anizkoitzaren ustea zabaltzen laguntzen du. Kontzepzio horrek, izan ere, azpimarratzen du emakume askok bizi duten egoera ez dela diskriminazio gehiketa baten ondorio, baizik eta aldi berean gertatzen diren askotariko diskriminazioen egiturez osatutako sistema konplexu bat dela. Egitura horiek, gainera, zein bere elkarreraginean dira egoera pertsonal bakoitzaren edo talde sozial bakoitzaren altzoan, eta diskriminazio zehatzak eragiten dituzte, osatzen duten baturaren bestelako batzuk, hain zuzen.

Horregatik guztiagatik, hauxe proposatzen dugu:

1. Berdintasun Politiken Zuzendaritza indartzea berdintasun-politiken garapena ziurtatuko duten giza baliabide eta baliabide ekonomiko iraunkorrekin.

2. Emakumeei zuzendutako Laguntza eta Arretako foru lana sendotu eta indartzea, bai berdintasun-politiketan, bai indarkeria matxistaren kontrako politiketan.
3. Berdintasun-politikak txertatzea Berdintasunerako Plan Integralen bidez, kontuan hartuz zehaztutako neurriak eta genero-berdintasunarekin, indarkeria matxistaren kontrako borrokarekin eta diskriminazio sexista desagertzearekin lotutako neurri guztiak.
4. Emakumeentzako enplegurako neurriak eta laguntza-programak garatzea, emakumeek ekintzailetzarako duten gaitasuna sustatu eta, halaber, Lurraldean diren jarduera ekonomikoko sektore ezberdinetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea bultzatu eta erraztuta.
5. Emakumeen eta gizonen arteko lan- eta soldata-arrakala murriztu eta ezabatzeke ekintzak bultzatu eta babestea sektore ekonomiko eta sozialekin batera.
6. Emakumezko langileentzat soldata-berdintasuna bermatzeko eta soldata- eta lan-diskriminazioa saihesteko neurriak ezartzea, eta baita lan- eta familia-bizitzaren eta bizitza pertsonalaren erantzunkidetasunera eta uztartzera zuzendutako neurriak ere.
7. Gizartea berdintasunean bizitzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren, prostituzioaren eta sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurka kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak garatzea.
8. Emakumeek hiri seguru batean bizitzeko duten eskubidea bermatzea, arrisku-faktoreak identifikatuz horiekin lan kontziente bat eginda eta genero-ikuspegia duen hirigintzan sakonduta.
9. Politika guztietan eta foru-aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.
10. Kuadrilletan berdintasun arloko proposamenak eta konponbideak sustatzea, programak eta tailerrak prestatuz gai hauei buruz: balioetan hezteak, berdintasuna sustatzea, matxismoaren prebentzioa, osasun eta sexualitate arduraturako heziketa; eta baita programa bereziak ere ikastetxe eta hezkuntza-zentro guztietan heziketa afektibo-sexualari eta indarkeria matxistari buruz.

Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza

Sozialistok herritar guztien arteko berdintasuneko tratua eta bereizkeriarik eza defendatzen dugu tolerantzian eta inklusioan oinarritutako ikuspegi interseksional batetik. Ikuspegi hori ekintza publikoaren beharrea da aniztasunarekiko errespetua eta benetako integrazioa bermatzeko.

Jatorri, kultura eta sexu-orientazio ezberdineko (beste batzuen artean) pertsonak elkarbizitzan dira gure auzoetako bakoitzean, gure hiriaren edo landako eremu bakoitzean.

Politika publikoetako aniztasunaren kudeaketa da tresna bat gizartean inklusio eta berdintasun handiago lortzeko. Gure gizartea bezalako testuinguru konplexuetan, aniztasunarekiko arretak helburu bikoitza du.

Alde batetik, aniztasunaren-desberdintasunaren ardatzek zeharkatutako pertsona eta kolektiboen inklusioa sustatzea, “bizilagun orokorre” zuzenduta, edo, egoera partikularretan, begirada inklusiboa duten jarduerak sustatzea, aniztasun-ardatzak (jatorria, kultura, sexu-orientazioa, klasea, erlijioa, gaixotasuna, etab.), egitez, ez daitezten bihurtu jarduera horietarako oztopo, diskriminazioa eragingo lukeelako horrela.

Bizikidetzaren sustatzea da, berriz, bigarren helburua, eta askotariko identitateen adierazpidea lagunduz egiten da, gizarteari berezko zaion ezaugarria den bezainbatean, ezaugarri positiboa, izan ere; giza eskubideen erreferente komuna, gizalegekoa, kontuan hartuta egingo da, gainera.

Beraz, sozialistek hauxe egiteko konpromisoa hartzen dugu:

1. Berdintasuneko Traturako Udal Plan bat sustatzeko, Europako zuzentarauekin eta Espainiako legeriarekin bat etorrita sexu, adin, arraza, etnia, erlijio edo sexu-orientazioarengatik bereizkeriarik ez dela egongo zaintzeko. Plan horietan, arrazismoa, xenofobia eta homofobia borrokatzeko neurriak txertatuko dira.
2. Aniztasuna sustatu eta babesteko eta pertsonen eta kolektiboen bereizkeriaren eta estigmatizazioaren kontra borrokatzeko.
3. Kultura, jatorri edo sexu-orientazioaren aniztasunetik inklusioaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten erakunde eta kolektibo sozialei eskaintzen zaien laguntza eta lankidetzaren indartzeko.

4. Erakundeek herritarrekin harremanerako dituzten bitarteko guztietan hizkuntza inklusiboa erabiltzea sustatzeko, adierazpen iraingarriak eta diskriminatzaileak saihestearren.
5. Urrakortasun egoeran diren pertsonen eta kolektiboen eskubideak defendatzen dituzten erakunde sozialei laguntzeko.
6. Kultura arteko aniztasunari, aniztasun afektibo-sexualari eta sexu-orientazioko aniztasunari ikusgarritasuna emateko sentsibilizazio-kanpainen bidez.
7. Topaguneak sortzeko adin, jatorri, kultur eta sexu-identitate ez-heterozisnormatiboko pertsonentzat.
8. Aniztasuna sustatzeko ekintzetarako ekimena bultzatzeko.
9. Zurrumurruen kontrako espazioetan aktiboki parte hartzeko.

Genero-indarkeriaren kontrako borroka

Jarduera eta neurri guztiak gutxi dira genero-indarkeriaren gaitza eta indarkeria mota guztiak borrokatzeko. Sozialistek ez dugu etsiko ahaleginean, eta:

1. Biktimentzako babes-neurriak sustatzen jarraituko dugu babesaren eta ahalduntzearen arlotik, euren bizitzaren errealitatea eralda dezaten.
2. Indarkeria matxistaren biktima diren hurrei zuzendutako arreta-programak eskaintzen eta hobetzen jarraituko dugu.
3. Gainerako erakundeekin koordinazio hobea izatea sustatuko dugu, batik bat, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, adingabeei arreta, akonpainamendua, babesa, laguntza psikologikoa, legezko laguntza, etxebizitza eta arreta eskaintzeko ekintzak batzeko.
4. Laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak ezarriko ditugu indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeentzat.
5. Larrialdiko pisuak jarriko ditugu, salaketa bat izaten denean emakumeak eta horien seme-alabak ez daitezen izan berriro tratu txarren emailearekin bizi beharrean.
6. Heziketa-kanpaina koordinatuak garatuko ditugu haurtzarotik hasita, genero-berdintasunaren eta indarkeria sexistaren kontrako borrokaren arloan.
7. Informazio-kanpainak egingo ditugu genero-indarkeria digitala borrokatzeko, eta jarduera-gida batzuk jaietan gerta daitezkeen abusu sexualen kasuetarako.

ARABA, PLANETAREKIN ENGAIATUTA

1970ean Planetaren Eguna izendatu zuten apirilaren 22a, gizakiak ingurumenean sortutako arazoei eta horiek kliman duten eraginari buruz kontzientziatzeko.

50 urte igaro dira ordutik, eta dagoeneko premiazkoa zaigu gure ohituren zati garrantzitsu bat aldatzea. Energia berriztagarrien erabilera areagotzea, erregai fosilen kaltetan, ekonomia zirkularra ezartzea, erosketa arduratsua eta elikadura kontzientea alferrik galtzea saihesteko, uraren erabilera eraginkorra ere zaintzen dugularik.

Printzipio horiek eredu-aldaketa batera garamatzate maila ekonomikoan zein sozialean, eta enplegu berriak sortuko ditu, gainera.

Legegintzako erabakiak, eraldaketa handietarako babes ekonomikoak, nazioarte mailan erabakitzen dira, baina norabide beretik jo behar dugu toki mailan ere, kasu honetan Araban, herritarrak eta enpresa-ehuna kontzientziatuz eta babestuz, elkarren artean molda eta arduratu gaitezen planeta zaintzeaz.

Hobeto hazi

Ukrainako Gerrak eta COVID-19aren pandemiak azkartu egin du energiaren eta baliabideen krisia, eta agerian utzi digu egungo hazkunde-eredua ez dela bideragarria. Horren ildotik, ezin dira gehiago atzeratu Ekonomia Ekologikoaren irizpideak. Sozialismotik, hazkunde ekonomiko jasangarri baterako estrategia berri bat jorratuko dugu, non banaketak alderdi ekologikoa ere kontuan izango duen alderdi ekonomikoaz gain, banaketa-alderdiak zentralizatuta direla, gizarte-ekitatea eta justizia klimatikoa bermaturik egon daitezen.

Garapena, beraz, baliabide naturalen eta lehengaien gainean den karga-ahalmena eta presio demografikoa kontuan hartuta egin behar da, sistema horren hornidurak eta errentagarritasuna bermatuta, edozelan ere. Horretarako, gainera, berriro zehaztu behar dira kontsumorako joerak, erakunde publikoen eta pribatuen

hazkundera eta aberastasuna ziurtatzeko, herritarrentzako enpleguen eta zerbitzuen sortzaile diren aldetik, produkzio-eredu iraunkor eta solidario bat lortu arte.

Araba, ekonomiaren trantsizio ekologikorako prest

Lehengaien kontsumotik eta isurpenetatik bereizirik den sistema bat lortzeko bidea, zinez, ekonomia zirkularrean oinarritzen diren politikek zedarrizten dute: zero kilometroko kontsumoa sustatzea, Administrazio guztien erosketa publiko berde eta zirkularra, gure industrietan zirkularitate-eredu bat garatzea, ingurumen-fiskalitatea ezartzea... Hobeto hazi nahi dugu, jasangarriago hazi nahi dugu etorkizunari begira. Horretarako:

1. **Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plan** bat egingo ditugu, Estatuko eta erkidegoko ekonomia zirkularren estrategiaren ardatzak bilduko dituen.
2. Ekonomia zirkularren ikasgelak sustatuko ditugu, kontsumo arduratsua eta ekologiaren gaztelaniazko hiru 'R'ak (Reducir-murriztu, Reciclar-birziklatu, Reutilizar-berrabili) sustatzeko kanpainak, eta prestakuntza-programak ekonomia zirkularren maila guztietan.
3. Ekodiseinua eta ekonomia zirkularra kontuan izango ditugu puntuazio-irizpide bezala Foru Aldundiaren kontratazio-pleguetan eta laguntza publikoko programetan.
4. Kontratazio publiko berde, zirkular eta iraunkorreko irizpideak lehenetsiko ditugu, eta nahitaez bete behar diren gutxieneko helburu batzuk ezarriko ditugu.
5. Probintzia mailako egungo hondakin-bilketa eta mapaketaren sistema berrikusi egingo dugu, eraginkorragoa eta efizienteagoa izan dadin, hondakin organikoak sortu eta biltzeagatik ordainketa sustatuz.
6. Produktuen erabilera arduratsua eta produktuak berrerabiltzeko edo botatzen diren produktuen berrerabilpena prestatzeko beste ekintza batzuk sustatuko

ditugu, ekoizpen eko-arduratsuko irizpide horiek betetzen dituzten enpresak **sarituz.**

7. Arabako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean, modu selektiboan bildutako zati organikoa balorizatzeko konpostatze-planta bat eraikitze eta gaur egun Gardelegira doazen hondakinak murrizteko biolehortze-planta baterako behar diren inbertsioak bultzatuko ditugu.
8. Inbertsioak bultzatuko ditugu Foru Aldunditik, Lurraldeko toki-erakundeekin koordinatuta, hondakinak kudeatzeko azpiegituretarako, Estatuko eta erkidegoko planetan birziklatzeko eta balorizaziorako ezarritako helburuak lortzeko.
9. Hondakinen kudeaketa errazteko kontzientziazio- eta prestakuntza-kanpainak egingo ditugu, familiei erakutsiz nola birziklatu behar den.

Energia berriztagarrien aldeko apustu irmoa

Isurpenak gutxitu eta gure produkzio- eta energia-sistema moldatu 2050ean neutroa izango den Lurralderantz urratsak emateko. Horixe da sozialistek ezartzen dugun helburua Araba berde baterantz erabakimenez bidea egiteko eta Europako Itun Berdearen Helburuak lortzeko.

Gure garairako benetako iraultza den eta hazkunderako eta kontsumorako gure ereduaren aldaketa dakarren erronka honetan, eraldaketa-bektore nagusia, ezbairik gabe, gure Lurraldearentzako eredu energetiko garbi eta iraunkor bat zehaztea da.

Sozialistak orbanik gabeko zerbitzu-orri batekin abiatzen gara horretan. Sozialistek itxi izan genuen behin betirako Garoñako zentral nuklearra. Sozialistak izan gara behin betirako bertan behera utzi izan duguna Subilanan gasa erauzteko proiektua. Eta Sozialistak gara gure Lurraldean energia berriztagarriak era antolatu, orekatu eta jasangarrian zabaltzearen alde duda izpirik gabe egiten dutenak.

Araba da Euskadin lurralderik aproposena energia berriztagarrietan inbertitzeko, lurraldearen orografiagatik, ezaugarriengatik eta luze-zabalagatik.

Sozialistek nahi dugu Araba izatea gure herrialdean berriztagarrien aldeko apustua gidatzen. Erakunde publikoetatik gidatuz egin nahi dugu, plangintzarekin eta lurralde-orekarekin, eta kontsentsu politiko eta sozialarekin.

Horretarako, komeni da Energia Berriztagarrien Lurralde Sektoreko Plan bat izatea lehenbailehen. Horren izapidea gehiegi ari da atzeratzen, eta ahalik lasterren izaten saiatuko gara.

Tokiko Komunitate Energetikoak. Energia-eskuragarritasunaren demokratizazioa

Gure gobernuak energia alorrean Estatuan eta Europan garatu izan dituen politikek erakusten dutenez, sozialistentzat lehentasuna da energia-eskuragarritasunaren demokratizazioa.

Hala, garrantzia ematen diogu energiaren sistema deszentralizatu bat izateari, kontsumitzaileak aktore nagusiak izan daitezkeelarik, energia-ekoizle bihurtu baitaitezke, eta energia-iturri deskarbonizatuak erabiliz, garbiak, berriztagarriak, hurbilekoak eta arrazoizko prezio batean izango direnak. Gainera, araudiari jarraituz baloratuko da instalazioaren kostu-irabazia eta ingurumen-inpaktua.

Sozialistak ari gara gidatzen Espainiako Gobernutik autokontsumo energetikoaren aldeko politika, finantzazioa Europako funtsen bidez bideratuta, eta baita martxan jartzeko administrazio-izapidea arinduz edo 500 m-tik 2 km-ra zabalduz energia sortzen denetik hirigunera bitartean autokontsumoko sare horientzat egon behar duen distantzia.

Tokiko komunitate energetikoak alternatiba bat dira, eta ezin hobeki uztartzen dituzte Araba deskarbonizatzeke geure egin behar ditugun hiru helburuak: energia berriztagarria sortzea, eraginkortasuna, eta aurrezpen energetikoa. Hori guztia, eredu ireki batez baliatuta, borondatezko parte-hartzearekin eta bizilagunek inbertsiorik egin beharrik gabe, energiarako sarbidea demokratizatzen delarik horrela.

Alternatiba horiek ez dira ke lainoa. **Alternatiba horiek badabilta Arabatik hurbil dauden udalerrri batzuetan, adibidez Zumarragan**, Gipuzkoan. Sozialistak buruan direla, ehunka auzotarrek **%25etik gorako aurrezpena** dute dagoeneko euren fakturretan, ez dute argindar-bidesari edo -kargurik ordaintzen, optimizatu egiten dute faktura bazkideek batera negoziatzen dutelako energiaren erosketa, eta berriztagarria kontsumitzen duten **energiaren %100a**. Gainera, prezio egonkorrak dituzte bermaturik plaken 25 urtetako bizitza baliagarrian.

Horregatik, Arabako sozialistek:

1. **Tokiko Komunitate Energetikoak sustatuko ditugu, Tokiko Autokontsumo Energetikorako Plan bat sustatuz Arabako Foru Aldunditik.**
2. Aldundia buruan dela, **lankidetzaz, kooperazioa eta herritarren parte-hartzea** izango ditu oinarri, eta Foru Administrazioak udalerriei eta auzotarrei laguntza emango die, eskura jarritz bere gaitasun finantzario, juridiko zein legezkoa Tokiko Komunitate Energetikoak abian jartzeko.
3. **Ekimen publikoa** izango da, eta eratzen diren komunitateak bultzatzearen, garatzearen eta mantentzearen **bermatzaile** izango dira administrazio publikoak.

Uraren Kudeaketa Integralerako Foru Hitzarmena Araban

Ura ondasun urria da. Klimaren aldaketarekin, gero eta ohikoagoak zaizkigu lehorte boladak edo euri-jasak.

Uraren eta akuiferoen kudeaketak, klimaren aldaketara egokitzeko ikuspegia lagun, baliabide hori modu jasangarri eta egokian erabiltzera eraman behar gaitu: ur-masak berreskuratu, leheneratu eta babestea, segurtasun hidrikoa indartuz, saneamendua eta arazketa hobetzea, ureztatze-etekinak eta kutsaduraren aurkako borroka, plangintza hidrológico bat egitea uholdeak eta lehortek kudeatzeko, eta lurrazpiko urak zaintzea.

Epe ertainera, gure helburua da ur-partzuergo guztiak bateratzea, bakar bat eratzeko. Izan ere, uraren erabilera kudeatzeaz gain, aurrea hartu behar diegu

uholdeei, eta dimentsionatu egin behar ditugu araztegiak bezalako azpiegiturak, gastu eraginkorragoa eta kudeaketa globala gauzatzeko.

Eredu bateratu nola adostu horranzko bidean, eta azpiegitura efizienteak eta baliabide horren kudeaketa hobe ezina bermatzeko, sozialistek hauxe egingo dugu:

1. Arabako Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzailea prestatu. **Lurralde osoko eta Lurralde osorako plan bat izango da**, eta Toki Erakunde guztiak eta azpiegitura guztiak bilduko ditu.

2. Uraren Ziklo Integralerako Foru Itun bat proposatuko dugu, helburu hauekin:

- Erakunde arteko koordinazioari eustea jarduerak planifikatzeko eta Lurralde osoan uraren ziklo integrala garatzeari begira aski aurrekontu-zuzkidura jartzeko, eta segurtasun hidrikoa, hau da, “ura” baliabidearen eskuragarritasuna, bermatzeko.
- 2026an amaituko den egungo Arabako Hornidura eta Saneamendu Plana ebaluatzea, eta plan berri bat egitea, Vitoria-Gasteizko uraren ziklo integralaren sistema ere barne hartuko duena, Araba osoan uraren politika publikoak koordinatzeko eta finkatzeko.
- Plan berria klimaren aldaketak dakartzan eta egiaztaturik diren mehatxu berrietara egokitu eta eguneratzea: lehorteen eta uholdeen kudeaketa.
- Baliabide hidrikoak eta ureztatze-sistemen azpiegiturak Lurraldearen ur-plangintzan sartzea.
- Eusko Jaurlaritzarekin hitzarturik den eta 2027an amaitzen den Esparru Akordioa ebaluatu eta berritzea, ur-hornidura eta hori gero ibaietara ingurumen-baldintza jasagarrietan itzultzea bermatzeko behar berriak eguneratu eta programatuta.
- Zadorrako eta Nerbioiko uholdeen kontrako jarduketa-plana amaitzea. Baia ibaiak behar dituen neurriak aztertzea.
- Autoaskia izango den tarifa-eredu bat mantentzea, uraren ziklo ezberdinen kostuak eta hornidura bermatzeko eta kalteberatasunean eta zailtasun

ekonomikoekin direnei baldintza mesedegarrietan emateko kostuak estaltzeko adinakoa izan beharko duena.

Mugikortasun jasangarria. Foru-garraio publikoa

Lurralde osorako pertsona guztientzat garraiobide-eskaintza bat bermatzeko, hona hemen jarduera politikoen bide-orria: mugikortasunerako beharrei erantzuna eman, ibilgailu pribatuaren erabilpenari alternatiba publiko sozial bat eskaini, eta isurpen kutsagarriek ingurumenean eragiten duten inpaktua murriztu.

Sozialistek hauxe egiteko konpromiso hartzen dugu:

1. Garraio publikoan Foronda eta Loiuko aireportuen eta Vitoria-Gasteizen eta gainerako lurraldearen arteko konexioa bermatu.
2. Tarifa bateratuaren sistema bat ezarri, pixkanakako hobariak eskainiko dituen foru-garraio publikoaren erabilpenean (ALAVABUS eskualde-garraioa), ohiko erabiltzaileen erabileraren eta baldintza pertsonalen arabera.
3. Gazteen artean garraio publikoaren erabilera sustatu.
4. Mugikortasun planak garatu Euskadiko mugikortasun jasangarrirako legea betez, inplikaturako erakunde eta kolektiboekin elkarlanean, arreta berezia eskainiz lantokietarako mugikortasun planei.
5. Arabako II. Mugikortasun Jasangarriko Plan Zuzentzailea egin Lurraldean, Vitoria-Gasteizekin eta geure inguru geografiko hurbileneekin diren behar berriei eta mugikortasun-aurreikuspeni erantzuna emateko.
6. Arabako Garraio eta Mugikortasun Partzuergoa eratu, garraiobide publikoen eskaintza koordinatzeko eta osatzeko.
7. Garraio publikoaren sistemaren digitalizazioa bultzatu, erabiltzaileari eskaintza oso bat eskaini ahal izateko.
8. Onartu berria den Arabako Bizikleta Estrategia eta Bizikletentzako Bideen Plana garatu bizikletaren erabilpena sustatzeko garraiobide jasangarri, erabilerraz eta unibertsal gisa lantokietarako eta ikastetxeetako joan-etorrietarako eta ondare naturalez gozatzeko. Sentsibilizazio-kanpainak ere egingo dira bizikleta ibilgailu pribatuaren ordeztatzeko, eta maiz erabiltzen diren errepideko bide-segurtasuna eta seinalizazio zehatza hobetuko dira.

Arabaren etorkizunerako lehen sektore iraunkor baten alde

Nazio Batuek aurreikusten dute 2050ean munduko populazioa 9.700 milioi biztanleraino helduko dela. Populazioa gora doakion planeta batek elikagai gehiago beharko ditu. Beraz, sektore estrategikoa da nekazaritzako elikagaiena, baina erronka bat du aurrean, gehiago eta hobeto ekoiztea baliabide gutxiagorekin, hau da, ingurumena zaintzen lagunduz. Hasiera batean, kontraesankorra dirudi, baina egingarria da ikerketan eta teknologia berrietan diren aurrerapenak erabilita. Ikusten dugunez, digitalizazioak eta produktu berrien agerpenak aldatu egingo du ustiakuntzak kudeatzeko era.

Europako Batasunak nekazaritza ekologiko gehiago egiteko eta janariak galdu eta alferrik botatzea murrizteko proiektuak jarri ditu martxan, beste batzuen artean, Europako Itun Berdea deritzanaren barruan, zehazki, Baserritik Mahaira Estrategian, zeinak nekazaritzako ekoizpena modu jasangarrian optimizatzea proposatzen baitu.

Ekoizpen-mota horrek kezka eragiten du nekazarien artean, produktu fitosanitarioen murrizketa dakarrelako. Horrenbestez, sustatu eta bultzatu beharra dago izurrite eta gaixotasunei erresistentea den produktu eta laboreen sektore horren ikerketa eta garapena.

Lehen sektoreari efizienteagoak eta ekologikoagoak izaten eta euren ustiakuntzak modernizatzen laguntzeko, sozialistek konpromisoa hartzen dugu:

1. Nekazaritza-iraunkortasuneko datu eta laguntzen Sare bat sortzeko, Nekazaritza Adimentsura eramango gaituen aholkularitza-zerbitzuak, datu-trukaketa eta ezagutzak indartzeko, adimen artifiziala, big data, zehaztasuneko ureztatze-sistemak (ura metatzeko azpiegiturak eta ureztatze ura banatzeko sareak hobetuz) erantsita nekazaritza iraunkorrak nahikoa errentagarritasun izan dezan.
2. Labore-txandaketa, konpostatzea edo izurrite eta gaixotasunen kontrol integratua bezalako labore-teknikak sartzeko laguntzak emateko. Azterketa

- sakona, monitorizazioa eta jarraipena egitean datza, ahal den neurrian prebenitzeko, horiek zabal ez daitezen, eta ondorio kaltegarriak murrizteko.
3. Janariak alferrik galtzearen aurkako kanpainak egiteko, era osasuntsuan kontsumitzen eta, aldi berean, erosketako otarrean aurrezten erakutsiz.
 4. Laguntza osagarriak emateko karbono isurpen gutxiko nekazaritzari, funtsezko eginkizuna betetzen duelako aldaketa klimatikoaren kontrako borrokan. Honetan datza:
 - 4.1. Hesiak edo zuhaitzak landatzea.
 - 4.2. Lekadunak haztea.
 - 4.3. Bitarteko laboreak eta estaldurako laboreak egitea.
 - 4.4. Kontserbazioko nekazaritza.
 - 4.5. Oihaneztapena edo baso-berritzea.
 5. Intsektu polinizatzaileen populazioari eta horiek gutxitzearen arrazoiei buruzko foru azterlana egiteko eta azterlan horretatik ondorioztatzen diren ekintzak gauzatzeko, erlezaintzari ere lagunduz intsektu polinizatzaileak mantentzen. Erlezaintza-plan bat egingo dugu Arabarako, erleen produktuen ekoizpena zaintzea giltzarri delako polinizazioan eta biodibertsitatearen kontserbazioan. Erlezainen profesionalizazioa eta produktu horien tokiko kontsumoa bultzatuko da, eztien kalitatearen bereizleak erabilita. Izurriteen gaineko ikerketa laguntzeko eta asiar liztorraren mehatxuaren kontra defendatzeko programa mantentzeko, onura publikoko mendietan eta udalen herri-mendietan erlategiak jartzera erraztuz. Nekazaritza eta, are, industria inguruneetan azpiegitura berdea –habitat-sare bat, polinizatzaileak ere bertan ibil daitezkeela– kontserbatzeko eta leheneratzeko.
 6. **BEHATOKIren bidez produkzio-kostuak jakiteko, Elikadura Katearen Legea betez bermatu dadin ustiakuntzaren errentagarritasun ekonomikoa, kostuen azpitik lan egitea eragotzita.**
 7. **Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen erresilientzia handitzeko, animalia-elikadurako lehengaietan autoaskitasuna, autokontsumo energetikoa eta nekazaritzako ustiapen eta jardueretan hondakinen tratamendua hobetuta.**
 8. **Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen ikuspegi berria lantzeko, elikagai osasuntsuak, kalitatekoak, hurbilekoak eta gure ingurunera egokitutakoak direnak ekoiztera zuzendua.**

- 9. Kontsumitzaileari tokiko produktuak eskaintzeko, komertzialki antolatutako zirkuituak diseinatzen eta abian jartzen laguntzeko,** kontsumo-kooperatibak sustatuz eta sentsibilizaziorako eta zabalpenerako kanpainak garatuz.
- 10. Nekazaritza Politika Bateratuaren gidalerro berriak gure ustiapenen eta gure lurraldearen errealitatera egokitzeko.**
- 11. Ustiapenetako hondakinen kudeaketa planifikatzeko,** ingurumen-kudeaketa egokia egon dadin horiei buruz.
12. Laneko arriskuen prebentzioko etengabeko prestakuntza eskaintzeko lehen sektorearentzat.
- 13. Belaunaldi erreleboa sustatzeko sektorean, plan berezien bitartez, eta emakumeak** lehen sektoreko ekoizpenean eta komertzializazioan **hasten laguntzeko.**
- 14. Fiskalitatearen hurrengo berrikuspenean lehen sektoreko eredu fiskalari buruzko azterketa bat egiteko,** ustiategiak eskualdatzeari, ureztatzaileen komunitateak eratu eta mantentzeari eta onura fiskalei buruz, sektorearen iraupena eta errentagarritasuna ziurtatze aldera.
15. Laboreak eta horien eraldaketa dibertsifikatuko duten nekazaritza- eta elikadura-industrien instalazioa diruz laguntzeko, lehen sektorearen biziraupenean onerako eragingo duen elementu den aldetik.
16. Nekazaritza- eta abeltzaintza-lanak egiten dituzten enpresak instalatzen laguntzeko. Enpresa horiek finkak eta mendiak mantentzeko lanak egiten dituzte, eta urtarotako lanetarako, oporraldietan edo nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietako aldi baterako ezintasun aldietan eskulan kualifikatua eskaintzen dute.

Nekazaritza sektorea

Familiako nekazaritza-eredua sendotzea giltzarri da tokiko produkzioari eusteko, landagunean irauten laguntzeko eta hurbileko eta kalitateko elikagaiak lortzeko. Lurra lantzen duen eta ingurumena zaintzen duen nekazaritza-produkzioa, alegia.

Sozialistek hauxe egiteko konpromiso hartzen dugu:

1. Laboreen dibertsifikazioan lagundu, labore tradizionalak berreskuratuz eta merkatuak eskatzen dituen beste batzuk landuz: otsaihena, landare oliotsuak, fruitu lehorrak, fruta-arbolak...
2. Klima aldaketaren ondorioei, batez ere, lehorteei, erresistenteagoak izango diren laboreko barietate berrietan eta izurriteen prebentzioan ikertu zentro teknologikoen laguntzarekin.
3. Nekazaritza-lurzoruak biziberritzeko nekazaritza-jardunbideak sortu, horien produktibitatea ez dadin agortu eta higaduraren eta landare-estalkiaren galeraren aurka borrokatzeko.
4. Olibondoan landaketa berreskuratuz eta zabaltzeko proiektuan kolaboratu, eta Arabako Errioxako olio merkatutzeko kanalak garatu.
5. Erremolatzaren labore-produkzioari eutsi, azukrea eraldatzeko sektorearekin harreman duinak izanez.
6. Produktu fitosanitarioentzako makineria garbitzeko eta produktuak birziklatzeko sare publiko bat izan.
7. Nekazaritza-aseguruak diruz laguntzen jarraitu eta Ministerioarekin lanean jarraitu mildiua ere aseguratu dadin.

Abeltzaintza sektorea

Sektorea desagertze arriskuan dago, hainbat krisik jota dago. Erabakimenezko politika publikoak behar dira sektore horren jarduerari eusteko, gako delako elikagaiak sortzeko eta ingurune naturala eta landagunea zaintzeko.

Sozialistek haxe egiteko konpromiso hartzen dugu:

1. Esnetako behin sektoreari etengabeko laguntza eman euren bideragarritasuna eta errentagarritasuna bermatzeko, abelburuen elikadurako lehengaietan (bazkak) autosufizienteak izaten, esnearentzako prezio duinak mantentzen eta hondakinen tratamenduan eta aprobetxamenduan lagunduta.
2. Abeltzaintza-eredu estentsibo tradizionala defendatu, belardien mantentzea eta mendien kudeaketa ahalbidetzeko.
3. Abeltzaintza estentsiboaren eta artzaintzaren garapena baldintzatzen duten espezie basatiak kudeatzeko planak egin, laguntzak emanaz itxiturak egiteko,

jarraipena egiteko bitarte teknologikoak jarriz eta kalteengatik konpentsazioak emanez.

4. Abeltzaintzarako aseguruak kontratatzearen kultura zabaldu, ustiapenen errentan kalteak eta galerak gutxitzeko.
5. Lurraldeko hegazti sektoreak animalien ongizatean, naturako harremanean eta ustiakuntza-eredu ezberdinen bizikidetzan oinarritutako baterantz trantsizioa egiten lagundu.
6. Abeltzaintza ustiapenetan kontratatu ahalko diren pertsonen prestakuntza landu, sektorea erakargarriagoa izan dadin.

Baso-politika

Mendietan lan egiteak esan nahi du basoaren kudeaketa planifikatua egitea, bai zuhaitziena, bai zuhaitzi tarteko belardiena, eta zuhaixka-landareak, fruituak (onddoak) eta animalien babeslekuak kontserbatzea. Esan nahi du basoko suteak prebenitzea eta kaltetutako eremuak birsortzea.

Sozialistek haxe egiteko konpromiso hartzen dugu:

1. Baso-masen osasun eta landare diagnostiko-mapa egin Lurralde osoan, Basogintzako Laguntza Planean jasotzen diren programak eta laguntzak behar bezala planifikatu eta diseinatzeko.
2. Basoko suteak eta hondamendi naturalak prebenitzeko baso-tratamenduak etengabe sustatu, eta abeltzaintza estentsiborako belardien azalera handitu.
3. Zuhaitz autoktono eta hostozabalekin egindako landaketa berrietan esku hartu, klimaren aldaketaren ondorioei aurre egiteko eta horiek ingurunera egokitzeko lurzorua degradazioa geldiarazteko, CO₂ atzitu eta erreserbatzeko eta "abandonatutako basoa" saihesteko.
4. Su hartutako azalerak berreskuratzeko eta leheneratzeko behar diren praktikak eta teknikak garatu, ingurunera egokitutako berariazko planekin.
5. Zurak baliabide berriztagarri gisa duen balioa gizarteratu, eta iraunkortasun-ziurtagiria zabaltzea horren erabilera eta merkaturatzea indartu.
6. Basolanetan lan-istripuak prebenitzeko estrategia areagotu.

ARABA, INDUSTRIAREKIN ETA KALITATEKO ENPLEGUAREKIN ENGAIATUTA

Araba da Espainiako probintziarik industrializatuena. Automobil-sektorea, makina-erreminta, hodia, aeronautika eta beirarena, besteak beste, enpresa traktoreak izan dira eta dira, eta, egun, beren produktuak eta ekoizpen-moduak eraldatzeko prozesuan daude, eraldaketa energetiko eta digitalera egokitzeko.

Badaude, halaber, bidea urratzen doazen beste sektore batzuk, esaterako robotika, sektore farmazeutikoa eta bateriena, baita etengabeko hobekuntzan diren beste batzuk ere: nekazaritza-elikadura, ardoa, hondakinak berreskuratu eta tratatzearena, edo logistika-sektorea. Balio erantsi handiko sektoreak dira, lehiakortasun ekonomikoko agertokietan agerraraztera garamatzate, eta gai izan behar dugu horiek indartzeko, gure Lurraldera industria indartsuak, inbertsioak eta kalitateko enplegua ekartzen dituztelako.

Laguntza industriaren eraldaketari

Arabara Europako Funtsen bidez Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin iritsi izan diren laguntzez gain (181 milioi eurokoak), toki-mailan ere laguntza emanaz aritzen gara prestakuntza arloan eta industriako azpiegiturak edo lurzoruaren kudeaketa hobetuz.

Beraz, pertsonak trebatzeko eta langileen behar berriei erantzuteko gainerako administrazioekin era koordinatuan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu. Horregatik, hauxe egin nahi dugu:

- 1. Prestakuntza-programak enpresen egungo eta etorkizuneko eskarietara egokitu**, enpresekin curriculumeko eta curriculumetik kanpoko praktika ordainduak egiteko konpromisoa ekarriko duen akordioak lortzearekin batera, talentuari eusten lagunduz.
- 2. Lanbide Heziketako eta industria-sektoreari lotutako unibertsitate-ikasketak sustatzeko kanpaineekin jarraitu**, arreta berezia jarritz emakumeak ere matrikula daitezen industriarekin lotutako ikasketetan.

3. **Bizitzan zeharreko prestakuntza** erraztu, langileen gaitasunak prestakuntza-eskakizun berrietara egokitzeko.
4. **Langabezia diren pertsonen birkualifikazioari** garaiz heldu, lan-merkatuko eskariekin bat eginez.
5. Unibertsitateekin eta Lanbide Heziketako Zentroekin lankidetzan aritu **enplegagarritasun-bekak** kontratatu ahal izateko.
6. **Enplegu-anezkekin** jarraitu enplegurako politika aktibo gisa, %60tik gorako enplegagarritasuneko eraginkortasuna baitute.
7. **Enplegu berdearen** kualifikazioa bultzatu, Europako Itun Berdea betez negozio-nitxo berrietarako trantsizioa errazteko.
8. Enpresa eskualdatzeko akonpainamendu-eredu bat jarri abian, irteten diren eta sartzen diren kudeatzaileen arteko eskualdaketa errazteko, Euskadi ekintzailea izan delako beti. Halatan, ekintzaile berriek jada martxan dauden negozioak aprobetxa ditzakete horietan euren proiektua garatzeko.

Azpiegitura industrialen hobetzea

1. **Industrialdeak hobetzeko plan bat egingo dugu**, energiaren, kontsumoaren eta ur-arazketaren eskakizunetara moldatuta eta berdeguneak ere jarrita inguruko biodibertsitatea hobetzeko.
2. **Etorkizuneko VIAP poligonorako sarbideak hobetzea sustatuko dugu**, Forondako aireportuko zerbitzuak zabaltzeko Estarroako errepidea hobetzeko proiektuaren bitartez.
3. **Jundizko intermodal berria zabaltzeko sarbideko errepideak egokituko ditugu**, eta etorkizuneko intermodalaren eta aireportuaren arteko bide-konexioa hobetzea aztertuko dugu.
4. AP-1eko garraiorako **zerbitzugune bat diseinatuko dugu**, Arabako Parke Teknologikoaren parean.

Industria-proiektuak erakartzea

1. Miñaoko Teknologia Elkartegiaren hedapena bultzatuko dugu, balio erantsi handiko enpresak jar daitezten bertan.
2. **Arabara inbertsioak ekartzeko eta Araba Estatuko eta Europako erakundeek sustatzen dituzten ekonomiako sektore estrategikoei lotutako erakunde eta agentzia publikoen egoitza izan dadin lanean arituko gara Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta.**
3. Araba Ekinean programaren osagarri izango den funts bat bultzatuko dugu ekintzaitzari baliabide gehiagorekin laguntzeko.
4. Ikastetxeekin kolaboratuko dugu ekintzaileei zuzendutako ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak egiteko.

Araba logistika-nodoa: kalitateko enplegurako abagunea

Arabak lehiakortasunerako duen abantaila nagusietako bat bere kokapen geografiko estrategikoa da, garraiobide guztien (errepidekoa, trenbidekoa eta airekoa) interkonexiorako eta intermodalitaterako gako diren konexioen ardatzean baitago penintsularen eta Europaren artean. Beraz, kokapen aparta da logistika- eta banaketa-industriaren garapenerako.

Sozialistek funtsezko proiektu estrategikoak ari gara sustatzen sektore honetan lehiakortasun gehiago izateko: Jundizko terminal intermodala, Armiñongo lotunea hobetzea edo AHTren Burgos eta Vitoria-Gasteizen arteko konexioa abiada onean doaz, Arabarekin hitza inoiz ez bezala betetzen duen Espainiako Gobernu bati esker.

Eta Forondako aireportua dugu, karga aldetik berriz ere penintsulako garrantzitsuenetakoen artean jarri izan duguna, urtez urte errekorrak hautsita bidaiari kopuruan.

Logistika finkatzeak enpleguaren sorrera eta enpresentzako aukerak dakartza, eta errepideetako garraio astuna trenbidera eramaten laguntzen du, berebiziko garrantzia duena klimaren aldaketari aurre egiteko eta dauden azpiegiturak hobeto aprobetxatzeko.

Berritzeko eta aldaketetara moldatzeko gaitasuna giltzarri da balio erantsi handiko sektore horietan toki gehiago izateko, eta industria horien garapenerako

inbertsioetarako eta errotzeko aldeko giro bat sortzen lagundu behar dugu erakundeetatik, aberastasuna eta enplegu egonkor nola kalitatekoa dakartelako.

Funtsezko hiru jarduera-ildoren bitartez egin nahi dugu: **prestakuntza**, tokiko profesionalen enplegarritasun-profilak enplegu-eskari berrietara moldatzeko; **azpiegitura industrialen hobekuntza**, eta **proiektuak erakartzeko** kokapen egokiak sortzea.

Prestigioa eta kalitatea Arabako Errioxako ardoarentzat

1. **Arabako ardoak sustatuko ditugu**, Arabako Errioxa eta Txakolina, estatuko eta nazioarteko merkatuetan, erakusketak eginez Espainiako eta Europako hainbat hiritan.
2. **Upeletarako bisitetarako interesa gehiago zabalduko dugu**, enoturismoarekin, kulturarekin eta naturarekin egiten diren jarduerari lotuta.
3. **Arabako Errioxako ardoak Errioxa JDren barruan** jarraitzea defendatuko dugu, baina Lurraldeko ardoak eta bertako jarduera enoturistikoak gehiago susta daitezela eskatuko dugu, eta Kontseilu Arauemailean upeltegi txikiek ordezkari handiagoa izan dezatela eta bai Arabako Foru Aldundiak, bai Eusko Jaurlaritzak bertan parte har dezatela galdeginez, ardoa ekoizteko, egiteko eta merkaturatzeko eskumenak bi erakundeen artean banaturik daudelako.
4. **Ardoaren Etxea** egokituko egingo dugu sektorearen eskari eta arazoetarako, enologiaren erreferentziazko zerbitzu publiko batean bihurtuz, aholkularitza teknikoko zentro bat mahatsaren ekoizpena eta kalitatea hobetzeko, erreferentziazko laborategia, eta eginkizun gehiago izango ditu prestakuntza eta ikerketa alorrean.
5. Arabako Errioxako Lanbide Heziketako hezkuntza-eskaintza dibertsifikatzea bultzatuko dugu, turismoari eta enologiari lotutako titulazioekin.

Arabako Errepide Sarea modernizatu eta hobetzea

Funtsezkoa da bide-segurtasuna etengabe hobetzea eta arabar errepideak modernizatzea trafiko-istripuak murriztu nahi baditugu, bai mugikortasun seguru eta adimentsua bermatzeko, bai Araba logistika-lotune gisa indartzeko eta Lurraldeko toki guztietara iristea bermatzeko.

Bide-azpiegituren kontserbazioa, mantentzea eta artapena maila hobezinean izatea; eta modu jasangarrian, gainera, bai aurrekontu aldetik, bai ingurumen aldetik. Hori da errepide arloan eskumen eksklusiboak ditugun aldetik garatzen jarraitu nahi duguna.

- 1. Iurreko lotunea hobetu eta egokitu egingo dugu**, handitu egingo diogu auto-ilarak saihesteko kapazitatea eta uholdeak prebenitzeko behar den obra egingo da.
- 2. Eskalmendiko lotunea osatu egingo dugu** Donostiatik Salburua auzorako sarbideak ahalbidetzeko.
- 3. AP-68ren kudeaketa publikoa bermatuko dugu** egungo emakida 2026an amaitzen denean.
- Arabako kapazitate handiko bideetan erabileragatiko ordainketa-sistema jartzeko eta ohiko erabiltzaileentzako hobari-politika eguneratzeko **Batzar Nagusiek agindutakoa garatuko dugu.**
- Kapazitate handiko bideak modernizatzeko eta digitalizatzeko plan bat **ezarriko dugu.**
- Bide-segurtasuneko auditoria gehiago egingo dugu**, baita jendea bizi den gunetako zeharbideetako seinaleztapenarena ere.
- Zarataren Aurkako Plana osatu egingo dugu** jendea bizi den gunetan zarataren inpaktua gutxitzeko.
- Auditoria bat egingo dugu** argizatutako bideetan eta tuneletan energia-eraginkortasunerako eta -aurrezpenerako.
- Ehiza-espeziek eragindako trafiko-istripuak **prebenitzeko plan bat egingo dugu.**

Arabako Errepide Mapako Jardueren Garapena

AIALA

- Bide-segurtasunaren hobekuntza Laudio eta Amurrio arteko konexioan.
- Amurrioko Aldaiturriaga poligonorako sarbidea hobetzeko proiektua.
- Amurriora Lezamatik sartzeko bide lasai bat jartzeko azterketa.
- Kexaako Monumentu Multzorako errepide-sarbidea hobetzea.
- Arteako Santutegirako sarbidea hobetzea Artziniegan.

ARABAKO MENDIALDEA

- Urizaharra eta Zanbrana arteko konexioa egokitzeko eta hobetzeko azterketa.
- Maeztu eta Leortza arteko zeharbidea hobetzeko obrak.
- Argandoña eta Egileta bitarteko zatia egokitu eta hobetzea.
- Kanpezuko zeharbidea egokitze-obraren hasiera.

AÑANAKO KUADRILLA

- Lantarongo errepidea egokitzeko eta hobetzeko proiektua.
- Manzanosko zeharbidea trenbide-pasagunea ezabatu ondoren.
- Pobesko zeharbidea trenbide-pasabidea ezabatu eta uholdeen prebentzioaren ondoren.
- La Tejera Mendatea egokitu eta hobetzea, eta Gesaltza Añanako saihesbidea garatzea.

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA

- A-1 errepideko Agurain parean oinezkoentzako iraganbide bat jartzea aztertu.
- A-1 errepideko ibilbidean faunaren igarobideak egokitzeko programa, konektibitate ekologikoa eta biodibertsitatea urratu ez daitezen bermatzeko.
- Burgeluko saihesbidearen eta trenbide-igarobidearen proiektua eguneratzea.

ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

- Samaniego-Leza tartea hobetu eta egokitzea: aldats-aldaketak kentzea eta bazterbideetarako plataforma handitzea.
- Assako bidegurutzea hobetzea.
- Iekarako bide-segurtasuna hobetzeko proiektuen eguneratzea.
- Carrascal poligonoaren eta Oionen arteko konexioa hobetzeko azterketa.
- Assa-Lantziego errepidearen eta Lantziegoko zeharbidearen azterketa.

GORBEIALDEKO KUADRILLA

- Legutioko saihesbidea: konexioa Aramaiorekin hirigunea zeharkatu gabe.
- N-240 errepidean Ubiderako sarbidea hobetu eta egokitzea.
- N-622 oso-osorik autobia bihurtzea AP-68ren Altubeko lotunean: azelerazio-eta desazelerazio-errailak eta herrietarako sarbideak hobetzea.

Araba, eraldaketa digitalerako prest

Digitalizazioak aldaketa garrantzitsuak eragin ditu –eta eragiten jarraituko du– enpleguan, kontsumo ohituretan nahiz oporrak banatzeko edo aisialdiaz gozatzeko moduan. Telelana, nomada digitalen agerpena, klikatze bidez kontsumitzeko era berriak direla-eta, zerbitzuen sektorea egokitu beharrean da eraldaketa horretara.

Pandemiak azkartu egin du digitalizazio-prozesu hori, eta bere arriskuak ditu, ikusi izan dugun bezala, baina aukerak ere eskaintzen ditu.

Asko aurreratu da Arabako landaguneetan gune zuriak ezabatzen, baina teknologia berrietarako sarbidea Lurraldeko gune guztietara iristeko finantzatzen jarraituko dugu Eusko Jaurlaritzarekin eta Espainiako Gobernuarekin batera.

Arabako kontuan hartzekoa da landaguneetan bizitza-proiektu bat egiteko aukera izan ahal izatea, alde batetik, telelanak edozein tokitatik lan egiteko aukera errazten duelako, eta, bestetik, naturatik hurbil diren espaziotan bizitzeko gero eta nahi handiago dagoelako.

Aukera gisa ikusten dugu turismoarekin lotutako negozioentzat eta, saltzen eta, are, egiten dituzten produktuen kalitateagatik eta berezitasunagatik, online salmentaren bidez euren negozioa indartu dezaketen saltokientzat.

Teknologia berriek, halaber, hurbileko saltokiei euren produktuak errazago ezagutzeko eta erakargarriagoak izateko aukera eskaintzen die, bezeroa fidelizatzeko aukeraz gain. Eta, jakina, kultura eta kirola sustatzen eta bultzatzen baditugu, errazago zaigu erakargarriagoak izatea, ekonomia dinamizatzea, enplegua sortzea eta jendarte berdinzaleagoa lortzea.

Hurbileko merkataritza eta kontsumo-ohitura berriak

Hurbileko merkataritza beharrezko tresna da gure herri eta hiriak erakargarriagoak izan daitezen, bertakoentzako bizimodua errazagoa izan dadin. Aldi berean, funtsezko tresna da ekonomia zirkularra eta hurbileko produktuak bultzatzeko.

Sektore hori etengabe ari da lanean gizartean gertatzen diren aldaketetara egokitzeko eta azalera handiko saltokiekin edo merkataritza elektronikoarekin lehiatu behar izateak –alde handia dago sektoreak eta azken horiek duten gaitasunean– dakartzkion arriskuak gainditzeko. Pandemiaren garairik makurrenean ederki ikusi izan da horiek duten garrantzia, goraiatzeko moduko arreta eskaini dute.

Hurbileko merkataritza laguntza publikoen beharrean da, halaxe erakusten dute datuek, eta halaxe egingo dugu gure erantzukizun politikoetatik.

Merkataritza elektronikoa gora badoa ere, eta kontraesankorra dirudien arren, egunez egun hazten doa herritarrek duten kontzientzia tokiko produktuen kontsumoari buruz, artisauzko produktuei buruz, eta zabaltzen doa hurbilean denda bat izatearen garrantzia.

Merkataritza, turismoa eta aisialdia geroz elkar lotuago daude. Merkataritza, beharrezko gauzak lortzeko jarduera izateaz gain, aisialdiko jarduera batean bihurtu da, produktu bereziak bilatzeko joeran, eremu guztietan, elikaduratik hasi eta modako produktuetaraino, tartean mota guztietako dendak direla.

Prezioarekin batera, hainbat aldagai daude saltoki bat aukeratzeko orduan onerako eragiten dutenak, besteak beste: salmentarako prestakuntza, profesionaltasuna, saltzen diren produktuen gaineko ezagutza, eta merkatariak kontsumitzaileari helarazten dion konfiantza Horregatik, sektorearen profesionaltasuna eta soldata duinak izatea dira kalitateko merkataritza ahaldun eta lehiakor bat sendotzeko beteta egon behar diren beste helburuetako bat.

Gune txikietan, gainera, denda gizarte-zerbitzu bat ere bada, elkargune bat, oinarrizko zerbitzu bat erosketak egitera joateko mugaturik dauden adinekoentzat, eta erreferentziazko establezimenduak izan daitezke bizilagunentzako oinarrizko produktuez gain inguruko nekazarien, abeltzainen eta artisauen jeneroa saltzen badute.

Hurbileko dendentzako laguntza

Sektoreari lagundu nahi diogu. Merkataritzako elkarteekin, Merkataritza Ganberarekin eta Araban hurbileko merkataritza bultzatzen lan egin nahi duten enpresa eta erakunde guztiekin lankidetzan egin nahi dugu lan. Horretarako, hauek bultzatuko ditugu:

1. **Etorkizuna duen Saltokia Programa**, zeinaren bidez ekintzaile berriei bideragarritasun-planak doan eskainiko baitizkiegu negozio berriak martxan jarri aurretik horien bideragarritasuna jakiteko.
2. **Alerta Goiztiarra Programa**. Errentagarritasunean behera doazen saltokiei neurri zuzentzaileak hartzen eta euren negozioa salbatzen laguntzeko programa da. Horren bidez, neurriak ezar daitezke prestakuntza, inbertsio edo bestelako alorretan, eta toki-erakundeetatik diruz lagundu daitezke hein batean, laguntza-programa baten bidez.
3. **Arrakastadun establezimenduentzako belaunaldi-erreleborako Programa**, euren ibilbidean zehar hainbat krisi igaro ondoren erreleborik aurkitzen ez dutenentzat, hain zuzen. Negozioa itxi baino urtebete lehenagotik, gutxienez, hasi behar da interesdunen bila.

4. **Digitalizazioa Kartan Programa.** Merkatarietzako prestakuntza digitala, in situ eta kartan, merkatariak eta enplegatuek duten digitalizazio eta prestakuntza maila kontuan hartuta.
5. **Profesionalizazio Programa.** Merkatari eta enplegatuentzako prestakuntza jendearenganako arretan, sektoreko ezagutzan, esperientzia arrakastatsuetan, salmenta-teknika berrietan, etab.
6. **Fidelizazio Programa.** Udalerriko edo auzoetako plataforma digitalaren bidez deskontuak, eskaintzak, zozketak, nobedadeak, zerbitzuak eta gisakoak eskaintzea txartel digitala duten pertsonen artean zabaltzeko edo salnodun txartelak oparitzeko, tokiko saltokietan erabil ditzaten.
7. **Tokiko merkataritza sustatzeko Programa,** arreta berezia jarritzaz gasteengan. Sustapen-kanpaina tradizioletako bitartekoez gain, publizitate-teknika berriak, blogariak edo kontsumitzaile gazteenek jarraitzen dituzten influencerrak erabiltzea, edo tokiko merkataritza, ekonomia zirkularra eta kontsumo jasangarri eta iraunkorra sustatzeko edo horiek duten garrantziari buruz kontzientzia sortzeko gamifikazioa.
8. **Ezagutu gaitzazu gure dendarengatik Programa. Turismoa eta merkataritza eta artisauzko produktuak eta 0 km-ko produktuak elkartzea.**
9. **Erosketen Zentrala sortzeko Programa,** produktuen eta zerbitzuen kostuak merkatzeko, ahal den denda gehienak hornituz.
10. **500 biztanle baino gutxiagoko landa gunetan dendak zabaltzeko laguntza.**

Turismoa eta aisialdia, arabar motor ekonomiko berriak

Turismoak hazkunde handia ezagutu izan du Araban bidaiari kopuruan, %8 igo da 2019. urtearen aldean, eta atzerriar turistak %25 gehiago dira. Ostatu-gauak ere bitik gora izatera irisi dira pertsonako. Datu horiek berrestera dator gure sustapen-estrategia, bai Estatu mailan, bai nazioarte mailan. Turismoa, gainera, lurralde osoan banatzen da, ez da Gasteizera edo Arabako Errioxara mugatzen.

Kultur jarduerak eta mota guztietako ekitaldiak bidaiariak erakartzen dituzten elementuak dira. Legegintzaldi honetan, hain zuzen, eta pandemiaren murrizketak

gorabehera, hitzordu ugari gauzatu izan dira: Esférica Jaialdia, Arabako Errioxan hiru egunez musika, ardoa, gastronomia eta natura elkartzen dituen, Umbra Light Jaialdia, Festival TBren Jaialdia, Miniature, Magialdia, Ironman, Araiako Umorezko Antzerki Jaialdia, Tan-Thai, Azkena Rock, Jazz Jaialdia, toki mailagoan turismo-enpresek gure kolaborazioarekin egindako beste ekitaldi batzuez gain.

Bidaiariak Araba osoan zehar banatzea ere lortu dugu, eta aurrera jarraitzen dugu helburu hori eta hauek ere betetzearren: turismo-baliabideak ez masifikatzeko hainbat esperientzia nabarmentzea, desestazionalizazioa, eta egonaldien egun kopurua igotzea.

Horregatik:

1. Araba eta horren baliabideak eta horren jarduerak sustatzeko ahaleginean jarraituko dugu bidaiaria-agentziekin eta turismoan espezializatutako komunikabideekin lan eginez.
2. Turismoa sustatzeko kanpaina nazionalekin eta nazioartekoekin jarraituko dugu.
3. Arabak eskaintzen dituen baliabideen osagarriak dituzten probintziekin harremanetan jarraituko dugu, euren jomuga aukeratzeko eta euren aisialdiaz gozatzeko orduan antzeko zaletasunek edo jarduerak bultzatuta mugitzen diren bidaiariak erakartzeko.
4. Udaleri txikienetan turismo-azpiegiturak hobetzea bultzatuko dugu.
5. Arrakasta lortu duten eta Lurraldeari onurak dakartzkien ekitaldiak babestu eta hobetu egingo ditugu, bereziki, bidaiari gutxien izaten den hilabeteetan egiten direnak.
6. Araba turismo irisgarriaren erreferentziatzat izaten laguntzen duten sektoreko enprekin elkarlanean eta horiek laguntzen jarraituko dugu.
7. Erakunde arteko lana bultzatuko dugu UNESCOk Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren Paisaia Kulturala izenda dezan.
8. Bezeroei kalitateko tratua eskaintzeko behar diren langileentzako prestakuntza landuko dugu, sektorearekin lankidetzan arituta.
9. Turismo-agertoki eta -jarduerak, publikoak zein pribatuak, babestu eta sustatuko ditugu.
10. Hizkuntzak, euskara eta gaztelania ikasteko turismoarekin lotutako jarduerak sustatuko ditugu, hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak eginez gure Lurraldean,

hizkuntza-eskolekin eta turismo-eragileekin lankidetzan arituta ezaugarri horietako zentroak sor daitezzen.

ARABA, KULTURAREKIN ENGAIATUTA

Arabar gizarteak kultura modernoa, indartsua, inklusiboa eta askotarikoa eskatzen du herritar guztientzat.

Kultura da mendeetan zehar gizakiei adierazteko eta libreago izateko aukera eman dieten arte-, sentimendu- eta pentsamendu-forma guztien batura.

Herritar guztien ondare bezala ulertzen dugu kultura, eta jendarte baten eskubide gisa, aginpidean dauden erakundeek eskaini eta zaindu behar dutena. Kultura behar-beharrezko ondasun gisa. Sekula baino kultura biziagoa.

Kultura behar-beharrezko ondasun gisa. Konpromiso sozialista bat

Kultur ekintza izan behar du kultur eragileen bidezko errefortzua eta koordinazioa, bideratzaile lanak egingo dituzten sistemak indartuta eta modu koherentean planifikatuta. Esku-hartzearen eremu guztietara zuzendutako ikuspegi sistemiko bat izan behar du.

Zorionez, urrun geratzen da halakorik egiten ez zen garaia, okerrago oraindik, sakrifikaturik handiena kultura zenekoa. Zer egingo genuen kulturarik gabe konfinamenduan? **Osasun-krisi global honek gure kultura zaindu beharra dugula erakutsi dugu, lehen premia biziko ondasun bat dela.**

Gure proiektuak aberastasun hori indartzea du xede. Gure Lurraldearen kultura indartzea, sustatzea, balioa ematea eta zabaltzea. Adierazpide ezberdinak sustatu eta sorturik den ondasuna zainduta. Gure kultur potentzia osoa ikertzeko eta ustiatzeko aukera emango digun errealitate bat marraztuta.

AFaren Arabako Kulturaren Bide Orria, Arabako kultur eta sormen sektorearekin ondutako prozesu parta-hartzaitik sortua dena, izango da etorkizunera begira jorratu nahi ditugun ildo estrategikoen tresna.

Iradier Arena: kultur apustu anbiziotsua

Arabak jauzi kualitatiboa eman beharra du kultur edukietan nahiz espazio eszenikoetan, diziplina guztietan lehen mailako kultur egitarau bat garatzeko eta, halaber, gaur egun ditugun ekipamenduak kontuan hartuta gure Lurraldera ekartzeko zail ditugun ikuskizun berriak erakartzeko aukera izan dezagun.

Vitoria-Gasteizko Principal Antzokia modernizatzen denean, hiriak agertoki berri bat izango du, XXI. mendeko antzoki bat, alegia.

Baina arabarren kultur eskariak beste agertoki osagarri batzuk ere eskatzen ditu, malguak eta egokiak izango direnak beste mota bateko ikuskizun eta diziplinetarako, eta, gaur-gaurkoz, ez gure Lurraldeak, ez gure hiriburuak, ez du halakorik.

Behar erreala, objektiboa da hori, halaxe helarazi izan digu Arabako kultur sektoreak ere. Hortaz, hiriko bigarren kultur ekipamenduan bihurtuko dugu Iradier Arena.

Horregatik, sozialistek:

Iradier-Arenaren eraberritzea sustatuko dugu, Vitoria-Gasteizko Udalarekin elkarlanean jardunez, erabilera anitzeko benetako kultur espazio izan dadin, musika, antzerki eta mota guztietako diziplinetako ikuskizunak ekartzeko aukera izan dezagun. Hala, hiriko bigarren kultur ekipamendu handia bihurtuko dugu Iradier Arena eraikina.

Kultur eta sormen sektorearentzako prestakuntza eta akonpainamendua

1. **Kultur eskaintza propioa handitzea bultzatutako dugu**, programazioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea sustatuz.
2. **Arte eszenikoen tailerrak jarriko ditugu martxan** eta diru-laguntzak arte eszenikoetako eta musikaletako prestakuntza-ekintzetarako, herritarrak diziplina artistikoetan prestatzea eta sustatzea bultzatzeko.
3. **Arte eta Lanbide Eskolarentzako beharrezko finantzazioa bermatuko dugu**, erreferentzia izaten jarrai dezan arabarren garapen artistikoan.
4. **Vitoria-Gasteizko UHUN Zentro Elkartuarentzako finantzazioa bermatuko dugu**, prestigio handiko unibertsitate-zentroa delako, beharrezkoa izateaz gain euren erantzukizunengatik prestakuntza aurrez aurre jasotzea ezinezkoa zaien pertsonen prestakuntzarako.
5. **Sektoreko profesionalentzako tresnak eta laguntzeko programak garatuko ditugu**, emakumeen parte-hartze aktiboa sustatuz sormen artistikoan eta kultur kudeaketan.
6. **KulturAraba Bulegoa indartu egingo dugu** Lurraldeko kultur eta sormen ehunari informatzeko, aholkatzeko eta akonpainatzeko erreferentzia-gune gisa.
7. **Ibilbidean programa bultzatuko dugu** Arabako administrazio publikoetako kultur teknikariak trebatzeko eta administrazio horiek euren programetan zerbitzurik onena eman ahal izateko.
8. **Trans Foko programa indartu egingo dugu**, Arabako kultur eragileentzako prestakuntza-programa gisa.

Kultur hezkuntzari eta bokazioari bultzada

1. Araban kultur ekimenak bultzatzen dituzten elkarte eta antolakundeei **lagunduko diegu Aldunditik**, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dutenak sarituz toki-erakundeei, elkarteei eta kultur eragileei zuzendutako diru-laguntzen bidez.
2. **Arabar sortzaileen ikusgarritasuna indartu egingo dugu, Arabako Foru Aldundiaren sari eta lehiaketak hobetuz**, esaterako Ignacio Aldecoa eta Ernestina de Champourcin literatur sariak edo Gazte Talent musika sariak, eta kultur sormena, batik bat, emakumeena, bultzatzen lagunduko duten beste batzuk sortuko ditugu,

3. **Arabako Antzinako Musika Astea indartuko dugu**, Donostiako Hamabostaldiarekin koordinatuta eta Organo Jaialdiarekin bat eginez.
4. **Larunbat musikalak bultzatuko ditugu** Arabako Arte Ederren Museoan.
5. **Lurralde osoan zehar finkaturik dauden jaialdien eta programen ibiltaritza lagunduko dugu**, esaterako, Araiako Umoreko Antzerkiaren Jaialdia edo Antzerki Ibiltaria Araban zehar, Ortzairekin.
6. Arabako Kaleko Antzerkiaren Zirkuituari **babesa emango diogu** Artekalerekin.
7. Magialdi Araba **lagunduko dugu**, Magia Festibala, Lurralde osoan.
8. Kortezarra Araba **bultzatuko dugu**, Film laburren Jaialdia, Lurralde osoan.
9. **Ikus-entzule txikiak eta gazteak garatzearen alde egiten jarraituko dugu** 'Antzerkia eskolan' bezalako programekin, edo Haziaraba ekimenarekin, hau da, arte-estimulazio goiztiarreko landa-jaialdia, ikasturtearekin batera hasiko dena.

Araba, Kultur Jomuga 365 egunetan

Arabak, egun, guztiz finkatutako eta nazio eta nazioarte mailan erreferente diren ekitaldi handiz osatutako agenda bat du, eta sozialistak horiek bultzatzen eta laguntzen ari gara erakundeetatik, kultur programazioan lankidetzan publiko eta pribatua sustatuta.

Arabako herritarrek data horiek euren egutegian gorderik izaten jarraitzea nahi dugu, zirkuitu musikal eta eszenikoen eskaintzarik onenaz goza dezaten, eta beste bazter batzuetako turista eta zaleentzako derrigorrezko bisita bihurtzea ere nahi dugu, agenda indartsu eta erakargarri bat bermatuz urtearen 365 egunetan.

Egitarauetan emakumeen eta gizonen arteko protagonismo orekatua dela egin nahi dugu, gainera.

Eta lehen mailako agertoki horiez baliaturik egin nahi dugu, tokiko programak garatzeko aukerak sortuta, arabar artistak ikusgarritasun-palanka horiek aprobetxa ditzaten euren proiektuekin aurrera egiteko.

Foru Aldunditik:

- Vitoria-Gasteizko Jazz Jaialdia eta Azkena Rock Jaialdia babestuko ditugu, euren egitarauak Lurralde osoan gara ditzaten lan eginez.

- Dulantziko Antzerki Amateurraren Jaialdia eta Festikale babestuko ditugu, Panta Rheirekin.
- Poeten jaialdia bultzatuko dugu maiatzean; arabar kultur agendako parte da dagoeneko, eta erreferente da zirkulu horretako jendearen artean.
- Bernaola Jaialdia lagunduko dugu, Sinkrorekin.
- **Lurraldean rock/pop/reggae/funky kontzertuen udako programazio bat bultzatuko dugu tokiko sustatzaileekin elkarlanean.**

Begirada zabala arabar kultur ondarearentzat

Arabaren kultur ondarea handienetakoa da, zalantzarik gabe, bere geografia bereziagatik eta mapan duen kokapen estrategikoagatik. Izan ere, Araba iraganbide garrantzitsua zen, eta da, bai Europarako, bai penintsularako.

Gure helburu nagusien artean ditugu gure kultur ondare aberats eta askotarikoa sustatzea, kontserbatzea eta zaintzea.

Helburu horrek berekin darama ondare horren dokumentazioa, zabalpena eta trebakuntza, izan arkeologikoa, arkitektonikoa edo historikoa.

Garrantzi sozial, historiko eta kultural nabarmeneko lana da, ezbairik gabe, geure iraganarekin dugun lotura azaltzen eta egun garena hobeto ulertzen laguntzen digulako. Eta, aldi berean, funtsezko lana da dugunari balioa emateko eta munduari erakargarritasun kultural eta turistiko garrantzitsu gisa eskaintzeko.

Begirada zabal eta anbiziotsuarekin landu nahi dugu gure ondarea. Babestu, zaindu, zabaldu eta erakutsi egin nahi dugu. Horretarako, sozialistek hauxe eskaintzen dugu:

- 1. Iruña Veleia erromatar hiria berreskuratzeko proiekturako behar diren inbertsioak egingo ditugu, Arkeologia Praktiketako Laborategi bihurtzeko.**
- 2. Santa Katalina lorategietan kultur jarduerak hobetzea sustatuko dugu, eremuko elementu traktore gisa, Iruña-Veleiarekin batera.**

3. **Kexaako Monumentu Multzoa**, Aialako turismo trakziorako poloa, **kulturarako eta turismorako erabiltzeko berreskuratuko dugu.**
4. **La Hoya Aztarnategian ikerketarako eta inbertsiorako proiektu anbiziotsu bat bultzatuko dugu** Arabako Errioxako turismo eta kultur traktore izateko.
5. Gatz Harana eta Santa Maria Katedrala fundazioekin gero eta gehiago kolaboratzen eta bultzatzen jarraituko dugu, Araba ondarearen kontserbazioan eta turismo eta kultur alorreko horren zabalpenean nazioarteko erreferente izatea finkatzeko oinarri gisa.
6. Micaela Portilla Eskola Tailerra bultzatzen jarraituko dugu zaharberritze historiko-arkitektonikoari lotutako lanbideetan gizarteratzeko eta trebatzeko, prestakuntza eskatzen diren lanbideen beharretara egokituta.
7. Bultzatzen jarraituko dugu arkeologiako ikerketak eta ondare historikoko proiektuen azterlanak.
8. Ondare historiko-arkitektonikoan esku hartzeko inbertsioak indartu egingo ditugu, legegintzaldi honetan Labrazako Harresiekin, Ocioko Lanos Gazteluarekin, Kuartangoko Trikuharriekin eta Arkaiako Termekin egin izan dugun bezala.
9. Arabako kultur ondarean esku-hartzeetarako diru-laguntzen deialdiak egiten jarraituko dugu Toki Erakundeetatik, ondasun higigarrietarako eta higiezineterako, eta baita partikularrentzat ere.

Araba, Kirolaren lurralde

Kulturak eta kirolak berebiziko eginkizuna betetzen dute haurtzaroan eta gaztaroan. Adin horietan arlo horiek sustatuz gero, lagundu egiten du elkarrizketak sortzen eta estereotipoak, kultur diferentziak, ezjakintasuna, tolerantziarik eza eta diskriminazioa apurtzen.

Eskola Kirolaren alde lan egitea gure neska-mutilen garapen fisiko eta emozionalaren alde lan egitea da, helduek jarduera fisikoa egiteari uzteko tasa murrizteko oinarri izateaz gain. Batik bat, neskek.

Eskola Kirol honen alde egingo dugu lan:

1. **Askotariko kirola egitera zuzenduta egongo da lehenespenez, ez da lehiaketara zuzendutakoa bakarrik izango; adiskidetasuna sustatuko da emaitzen ginetik.**
2. **Neska-mutilen heziketa integralera zuzenduko da, berdintasunean eskura izatea eta parte hartzea bermatuz, sexuan oinarritutako estereotipo eta rolez harago, jarduerak espazio naturaletan egitea sustatuz, geure ingurune naturalaz baliatuz kirolerako ohitura eta praktika indartzeko.**
3. **Askotariko kirola sustatzeko Topaketak bultzatuko ditugu, neska-mutilei kirol-modalitate eta -ibilbide ezberdinak ezagutzeko aukera emanaz.**
4. Ikastetxeetako gorputz heziketako hezitzaileekin **elkarrekintzan koordinatuko dugu**, gazteak eskolaz kanpoko kirola egitera animatu ditzaten.
5. **Kirolaren Ikuskaritzaren lehen urtearen ebaluazioa egingo dugu**, hobetzeko eta kirolaren helburu publikoen lorpena hobetzen duen tresna gisa sustatzen jarraitzeko.
6. **Kanpaina bat egingo dugu urtero kirolaren balioei buruz.**
7. **Denon Eskola programa indartu egingo dugu** kirola Arabako ikastetxe guztietan egituratzen laguntzeko, batik bat, **bere idiosinkrasia bereziagatik eta IGE indartsurik ez egoteagatik eskola kirolaren foru programan parte hartzeko egiturazko arazoak dituztenetan.**

Laguntza kirolari eta kirolaren egiturari:

1. **Arabako kirol federazioekin eta federazioen elkartearekin dugun harreman sustatuko dugu.** Oso lan ona egiten dute.
2. Lurraldean egin daitezken kirol proba nazionalak eta nazioartekoak **bultzatuko ditugu**, bereziki, arabar eskualdeetan egin daitezkeenak.
3. **Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege berria ezartzeko lan-plan bat prestatuko dugu federazioekin eta Arabako Kirol Federazioen Elkartearekin.**
4. Goi-mailako errendimenduko klubak **diruz lagunduko ditugu** federatutako lehiaketetan parte hartzeko joan-etorrietarako eta ostatueterako.
5. Kirol egokituaren ekitaldiak, txapelketak edo torneoak **sustatu eta babestuko ditugu.**

6. **Promesa izeneko kirolarien programa indartu egingo dugu.** Ikusgarritasun handiagoaz gain, psikologia, nutrizio, fisioterapia eta mediku-azterketaren zerbitzuak jaso izan dituzte legegintzaldi honetan.
7. **Eskola kirolean parte hartzen duten eragile guztien trebakuntza sustatuko dugu.**
8. **Kiolaraba eta horren funtzionamendua sustatuko dugu,** bere emaitzak hobetzera zuzenduta. Babesle berriak bilatzeko lan egingo dugu.

Emakumezkoen kirola bultzatzea

Emakumezkoen kirolak bultzada jaso izan dueneko legegintzaldia izan da oraingo hau, eta hurrengoak ere halaxe izaten segitzea nahi dugu, benetako berdintasuna lortu arte.

Kirol eragileak alor horretan nesken eta mutilen parte-hartzea sustatzeak duen garrantziari buruz sensibilizatzeko lan egitea izango da gure helburu nagusia, eta emakumezko kirol federatua zein profesionala indartzea.

Horretarako:

1. Emakumezkoentzat bakarrik diren torneoak babestuko ditugu.
2. Emakumezkoen kirolarentzako diru-laguntzak sustatuko ditugu.
3. Urrezko Emakumeak aldizkaria argitaratzen jarraituko dugu. Aldizkari horrek, besteak beste, helburu hauek ditu: arabar emakumezko gazteen artean kirola egitea sustatzea, emakumezko kirolariei ikusgarritasuna ematea, neskentzat zein mutilentzat, erreferente izan daitezen, eta kirol minoritarioak sustatzea.

Gazteentzako ekintzak

Gazteriaren Foru Erakundetik arabar gazteen garapen pertsonal eta sozialaren prozesua lantzen dugu, politikak, laguntzak eta zerbitzuak zehaztu, ezarri eta garatuta.

Zeharkako politikak garatuko ditugu, bai garapen pertsonalaren ikuspegitik, jokabideko nahasmenduetan edo, are, gaixotasun mentaletan bihur daitezkeen arazoei arreta eskainita, bai lana bilatzen lagunduz, beste ekintza askoren artean.

Arabako gazteek garapen integrala izaten eta horien gizarteratzean lagundu nahi dugu, honako arlo hauek landuko dituzten programa batzuk ezarrita: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, gizarte inklusioa, prestakuntza, osasun mentala, indarkeria mota orotik babestea, emantzipazioa, eta laneratzea.

Araba lurralde erakargarria, dinamikoa, segurua eta alai izatea nahi dugu gazteen garapen oso baterako. Arabako gazteentzat eta gazteekin egin nahi dugu. Horretarako, hauxe egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- 1. Genero indarkeriaren eta ziberjazarpenaren kontrako sentsibilizazio-kanpainak** Arabako gazteentzat. Ikastetxe eta institutuetan egingo dira eta 800 gaztek baino gehiagok hartzen dute parte urtero.
- 2. Gazteek Arabako gazteentzako interesgarriak izango diren ekimenak proposatzeko gogoeta- eta eztabaida-esparru iraunkor bat eskainiko dugu.**
- 3. Gazteriaren parte-hartze aktiboa sustatuko duten esku-hartze eta ikerketa proiektuak diruz laguntzea.**
- 4. Aisialdiko monitore eta zuzendarientzako prestakuntza-ikastaroak antolatzea** eurek eskatzen dituzten gaietarako.
- 5. Gazteen aisialdiko eta denbora libreko elkarteetako parte-hartzea sustatzea**, elkarte horien egonkortasuna bermatuz.
- 6. Gazteen artean osasun mentalari buruzko prestakuntza-ikastaroak egitea**, adikzioen eta suizidioen prebentziorako, esku-hartze osasungarri bati begira komunikaziorako gaitasunak lantzeko eta emozioen autoheziketarako.

7. **Arabian gazteentzako informazio-zerbitzuak martxan jartzea** webgune, WhatsApp eta sare sozialen bidez, enpleguari eta prestakuntzei buruzko edukia sortuz.
8. Ikastetxeetan **heziketa-kanpainak egitea urtero**, derrigorrezko hezkuntza edo batxilergoa bukatu ondoren prestakuntzarako zer aukera dituzten azaltzeko.
9. **Arabako Gazte Aterpetxeen Sareko programak urtero egokitzea**. Aisialdira garairako lan pedagogiko bat jorratzen dute, eta lan handia egiten dute bizikidetzara, berdintasuna, elkartasuna, ingurumenarekiko eta beste kulturekiko errespetua bezalako balioetan.
10. Aisialdian eta denbora librean gazteen bizitza hobetzera zuzentzen diren jarduerak egiten dituzten erakundeak diruz laguntzea.
11. Erasmus proiektua hezkuntza, prestakuntza eta gazteria arloan aprobetxatzeko lanean jarraitzea, proiektu berritzaileak sustatuz eta belaunaldi gazteenak ahaldunduz kultur eragile aktiboak izan daitezen.
12. Unibertsitateko edo unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten eta horretarako euren bizilekutik kanpoko udalerrira batera joan-etorrian ibili behar izaten duten gazteei laguntzak ematen jarraituko dugu, gazteek prestakuntza jasotzeko aukera bultzatzeko.
13. Indartu egingo ditugu Arabako lurralde osoko gazteentzako aukera-berdintasuna hobetuko duten zerbitzu eta prestazioak sustatzen dituzten toki-erakundeentzako gazte- eta aholkularitza-programak.

ARABA, LURRALDEAREKIN ENGAIATUTA

Arabako erakunde- eta administrazio-arkitekturak, Foru Aldundia erakunde nagusi dela eta Kuadrillak, Udalak, Kontzejuak eta Administrazio Batzarrak toki-erakunde direla, ikuspegi ireki eta lankidetzazkoa izatea eskatzen du politika publikoak eraginkortasun handiagoz garatzeko.

Administrazio bakoitzak bere eskumen eremua du. Erakunde-geruza bakoitzak errespetatu egin behar ditu gainerakoen eginkizunak.

Sozialistok, politika, errespetutik eta leialtasun instituzionaletik egiten dugu. Eta uste sendo batetik, gainera: lankidetzeta eta kogobernantza ezinbestekoak direla gero eta konplexuago den errealitate politikoa gobernatzeko, erakunde bakoitzak, bere aldetik arituz gero, konpondu ezin dituen erronka global batzuk ditugulako.

Sozialistek erakunde publiko indartsu batzuk nahi ditugu, finantza-nahikotasuna izango dutenak beren erantzukizunei heltzeko eta euren zerbitzuak emateko.

Gizarte modura eraldaketarako ezartzen ditugun proiektuak eraginkortasunez bete daitezela nahi dugu.

Arabako herritar guztien aukera-berdintasuna bermatu nahi dugu, bai landagunean bizi direnentzat, bai hirian bizi direnentzat, zerbitzu publikoetarako irisgarritasuna berdintasuna bermatuta.

Horretarako, sozialistek hauxe egiteko konpromiso hartzen dugu:

1. Legegintzaldi honetan programan optimizatzeari begira abian jarritako toki-finantzazioko plan berriak eguneratzea, lehentasuna emanaz trantsizio energetikoaren, hutsik dauden etxebizitzak birgaitzearen eta oinarritzko zerbitzuak estaltzearen jardueri.
2. Etxebizitza publikoaren eskaintza indartzea 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri eta hiriguneetan, landaguneetako eraikinak birgaitzeko laguntza-ildoak gaituz udalekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.

3. Lurralde osorako Oinarrizko Zerbitzuak Estaltzeko Plan bat garatzea, herritar guztiek osasun- eta hezkuntza-zerbitzuetarako aukera berdintasunean izan dezaten, bizi diren tokian bizi direla.
4. Mugakide diren erkidegoekin lankidetzeta-hitzarmenak egitea oinarrizko zerbitzuen prestazioa partekatzeko.
5. Lurraldeko eskola-eskaintza aztertu egingo dugu Foru Aldunditik eta Lurraldeko udalerriekin elkarlanean, eskola-eremu bakoitzaren beharrentzako eskaintza publiko egoki bat izatea une oro aldeztuz eskumendun erakundeen aurrean.
6. Arabako Suteak Itzaltzeko Eskualde Unitateen instalazioak hobetzeko, eguneratzeko eta modernizatzeko planarekin jarraituko dugu zerbitzua modu egokian eman dadila, profesionalen lan-baldintzak eta larrialdiko beste zerbitzuen –batez ere, osasunekoak– kokapena bermatzeko.

Araba, zugandik hurbil

Erakundeak herritarrengandik hurbil egon behar dira, sarriago eta hobeto jakin ditzaten hartzen diren erabakiak eta martxan jartzen diren ekimen eta programak. Arreta eta kontu-ematea hobetzea lehentasunezko helburua da edozein arduradun publiko sozialistarentzat.

Administrazioaren digitalizazioak lagundu dezake horretan, alertak sortuz pertsona bakoitzari interesatzen zaizkion gaietara buruz eta informazioa eskainiz gardentasunaren atarrien bitartez.

Askotan, ordea, digitalizazio horrek baldartu egiten du Administrazioaren eta administratuaren arteko harremana. Administrazio-izapideen digitalizazioak eta administrazioekin komunikatzeko postontzi pertsonal bat sortzeak arrakala digitala eraginarazten die pertsona askori, eta horrek ziurgabetasunak eta, are, Administrazioa urrun dagoenaren sentipena sortzen du.

Izapide asko egiten dira Aldunditik, hasi autobus txartel baten erosketatik eta diru-laguntzak eskatzeraino, baina bi izapidek eragiten diete, nagusiki, pertsona askori: errenta aitopenak eta mendekotasunaren baloraziorako izapideak.

Zergadunei gero eta gehiago erraztu behar zaie euren zerga-betebeharren betetzea, izan herritarren erosotasunagatik, izan Administrazioak berak sistema eraginkorrek izateko duen gaitasunagatik nahiz pedagogia fiskala egiteko beharragatik.

Horregatik:

1. Herritarren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko administrazio-izapideak digitalizatzeko prozesuarekin jarraituko dugu, ahalik intuitiboak eta erraznak izan daitezen, tutoretzak hobetuta, arte informazio-hitzaldiak eskainiz herritarrei prozesu hori errazagoa izan dakien.
2. Gardentasunaren orria hobetu egingo dugu, herritarrek behar dituzten agiriak errazago aurki ditzaten.
3. Herritarrek foru administrazioarekin duten harremanean hizkuntza ofizialetako edozein aske aukeratzeko ahaleginean jarraituko dugu.
4. Herritarren parte-hartzeari dagokionez, igo egingo ditugu aurrekontu parte-hartzaileak, Kuadrilla guztiek bertako auzokideek bakarrik bozkatzuz aukeratutako obra bat izan dezaten.
5. Ogasun-administrazioaren zergadunari arreta eta informazioa eskaintzeko zerbitzuak indartu egingo ditugu, batik bat, PFEZaren atalean eta zergadunarentzako telefono-arretan.
6. Zergadunentzako zein Ogasun-administrazioarentzako datuen interkonexiorako eta azkartasunerako sistemetan sakonduko dugu, nahi duenarentzat PFEZaren zirriborroak egin daitezen, eta baita SZrena ere hala eskatzen duten autonomo eta enpresentzat.
7. Arabako Foru Aldundiaren eta Lurraldeko udalen arte elkarreragingarritasuna bultzatuko dugu.

Araba Euskaraz

Sozialistek geure egin izan dugu beti euskararen erabilera zabaltzen joateko helburua, eta horren berreskurapena ahalbidetu duten itun eta legegintza mailako aurrerapen guztiak bultzatzen egon izan gara.

Hizkuntza-politikako gure esku-hartzea gidatuko duen helburuak izan behar dute norberak nahi duen hizkuntzan bizitzeko eta komunikatzeko eskubidea bermatzea, eskola-arrakastarako aukera berdintasuna bermatzea, Administrazioaren baliabideetarako edo enplegu publikorako sarbidea izatea, eta bi hizkuntzen eta herritarren arteko bizikidetzaren harmoniatsua nola baketsua.

Pertsonak gara eskubideen titularrak. Ez hizkuntzak. Komunikaziorako eta herritarren aberastasun kultural eta sozialerako tresnak izango dira eta izan behar dute azken horiek.

Sozialistek beti defendatu izan dugu euskararen erabilera gizartean sustatzeko modurik onena hori erakargarri egitea dela, erabilera berezko, natural eta malgua egiteko aukerak sortzen dituzten formulak sustatuta.

Eta horretantxe jarraitu nahi dugu. Horregatik:

1. Lanean jarraituko dugu foru-administrazioetik herritarrek administrazioarekin duten harremanean hizkuntza ofizialetako edozein aske hautatu ahal izateko beharrezko bitartekoak jar daitezela.
2. Turismoa euskaraz. Euskarazko turismo-jarduerak sustatuko ditugu gure Lurraldean barnetegiak edo hizkuntza-murgiltzeko egonaldiak egiten dituztenentzat. Arabako turismo eta kultur baliabide nagusietan bisitak eta ibilbideak euskaraz egiteko aukera eskainiko da Lurraldeko hizkuntza-eskolekin eta turismo-agentziekin elkarlanean arituta.
3. Kultura Euskaraz. Euskarazko kultur produktuen kontsumoa hauspotzeko kultur bonuak zabalduko ditugu, era berezian sustatuz hizkuntza ikasteko prozesuan direnentzat.

ARABA, BERDINTASUNAREKIN ENGAIATUTA

Sozialistek gastu publikoan eraginkorragoak eta efizienteagoak izateko konpromisoa hartzen dugu, baina baita zerbitzu publikoak eta familia eta enpresentzako laguntza hobetzeko ere. Halatan, baliabide publikoek bermatu egin behar dute Foru Gobernutik herritarren babesarekin bete nahi ditugun konpromisoak. Horretarako, behar diren baliabideak justizia sozial gehiagorekin, hots, pixkanaka eta berdintasunean, nola lor ditzakegun ere proposatzen dugu.

Justizia fiskalik gabe ez dago justizia sozialik

Hori da Euskadiko zerga-sistemari buruz euskal sozialistak defendatzen eta zehazten ari garen araua, sinetsirik baikaude ekonomiak lagundu egin behar duela bermatzen aberastasunaren banaketa, desberdintasunen murrizketa eta zerbitzu publikoak ziurtatzeko eta handitzeko aski baliabide izatea.

Gaur egun, sozialistek 2013an bultzatu eta 2017 osatu genituen erreforma handiei esker, Arabak eta Euskadi osoak gaitasun fiskal sendo eta egonkorra dute gastu eta inbertsio publikoari dagokionez, zerga-kultura arduratsu batean oinarrituta eta ekitatearen, gehikortasunaren eta justizia sozialaren irizpideetan ardaztuta, non gehien duenak gehiago ematen duen, non gehien dutenek ekarpen gehiago egiten duten.

Azken lau urteotan zerbait egiaztatu izan badugu, izan da sektore publikotik erantzun ahal izan badiegu pandemiaren eta Putinek Ukrainan sortutako gerraren triskantzari, zehazki gure zerga-sistemak horretarako gaitasuna izateagatik izan dela.

Era horretan, gure autogobernuak eskaintzen digun erantzukizun handiaz kontziente garela, pandemia garaian eta Ukrainiako gerraren ondorioei aurre egiterakoan zerga-politika erabili izan dugu Pedro Sánchezen Gobernuak hartutako babes-neurriak osatzeko. Eta oso ondo mugarritutako eta oso ondo neurtutako neurrien bidez egin izan dugu, inpaktu horiek zerbitzu publikoak indartzeko dugun gaitasunari ez diotela eragingo bermatuz.

Autonomoei eta enpresei, zerga alorrean, arintzea eta oxigenoa eskaintzeko aldi baterako neurriak hartu izan ditugu 2020an, 2021ean eta 2022an.

PFEZaren tarifak deflatatu egin ditugu 2022an eta 2023an, eta herritar guztiei egin die mesede, baino bereziki gehien behar dutenei, 200 €-ko aparteko murrizketa ezarrita 35.000 €-tik beherako kuotentzat.

Eskuina botere publikoak herritarren patrikaren arerio direla predikatzen ari den giro politiko eta sozial batean, bere egiazko errezeta bakarra gobernatzen duten autonomia erkidegoetan ondare zerga kentzea izan denean, sozialistak izan gara zerga-egitura hori babestearen bermea, hori delako gure kontratu sozialaren zutarria, arazo kolektiboentzako konponbide bakarra baliabide publikoen ahultzea proposatzen dutenen aurrean.

Eta berme hori izaten jarraitu nahi dugu. Hori delako bidezko era batean Euskadin eta Araban gure Ongizate Estatuaren oinarriak indartzen segitzeko behar dugun inbertsioari eta gastu publikoari eusteko tresna.

Politika fiskalak egonkortasuna eskatzen du. Kotsentsu politikoa eskatzen du. Zorroztasun juridikoa. Baina abiada izugarrian eraldatzen doan gizartearen eta ekonomiaren eta koiuntura sozioekonomiko baten etengabeko berrazterketa, eguneraketa eta moldaketa ere eskatzen du.

XXI. menderako zerga-sistema bat

Erronka demografikoek, eraldaketa digitalek, ekonomia iraunkorrek, enpleguan ematen diren aldaketek, etxebizitza-politika aktiboak sustatzeak, trantsizio energetikoak eta beste hamaika fenomenok ere erantzun bat eskatzen dute fiskalitate aldetik.

Azken urteotan, Europako politikek beste norabide bat hartu dute zerga arloan, eta lurraldeen arteko duning-a borrokatuko duen europar zerga-eremu bat orekatzeko aukera emango duen konbergentzia baterantz lerratzen ari da, argi eta garbi. Hala, zerga-sistema progresiboagoak eta kontu publikoen kudeaketa hedakor eta arduratsu baterantz ari da egiten.

Sistema osoaren pixkanakako izaera horretan sakondu nahi dugu. Europako batez bestekoaren pare egongo den presio fiskal bateranzko urratsak eman nahi ditugu. Ondare handiekin zerga-enkantera jolasten dutenen aldean, Araban eta Euskadin gehien dutenek gehiago jar dezatela bermatzea nahi dugu. Beste norabide bat eman nahi diogu etxebizitzari lotutako politika fiskalari, alokairua gehiago eta hobeto sustatzeko eta arabar gazteen emantzipazioa eta herritar guztien alokairuko etxebizitzarako aukera hobetzeko. Trantsizio energetikoa sustatu nahi dugu energia garbietan, mugikortasun elektrikoan eta autokontsumoan inbertsioak sustatzeko neurriekin.

Hori lortzeko, hauxe proposatzen dugu:

1. Laneko errenten PFEZaren tasak modu integralean berrikustea, tarte guztietan gehikortasuna hobetzeko.
2. Aurrezki-errentei aplikagarriak diren tasa eta tarteak berrikustea laneko errentenetara hurbiltzeko eta horien pixkanakako izaera hobetzeko.
3. Laneko errendimenduei egiten zaizkien murrizketen gehikortasuna hobetzea.
4. Ondarea eta aberastasuna zergapetzen dituzten zergen harmonizazioan aurrera egitea, eta Espainiako Gobernuak aberastasun handiei aldi baterako ezarritako karga benetan aplikatzen zaiela bermatzea.
5. Enpresen jabetza eskualdatzen laguntzea.
6. Sozietateen gaineko Zergaren kenkari, hobari eta salbuespen sistemen inpaktu fiskala berrikustea, gutxieneko zergapetze eraginkor bat sustatuz.
7. Alokairuaren ordainketaren kenkaria igotzea, gehikortasun fiskaleko irizpidearekin. Alokairuaren ordainketarengatiko %30eko kenkaria irizpide orokor gisa ezartzea proposatzen da, eta gazteen (35 urte artekoak) eta kenkari handiagoa zuten kolektiboen kasuan kenkari hori %35ean jartzea.
8. Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) ekoerregimenak salbuetsita egongo dira PFEZean zergapetzetik NPB berria aplikatzen denean.
9. Beste kenkari bat ezartzea zergadun ahulenen taldeentzat, zerga negatibo edo kenkari itzulgarri gisa, alokairuagatik kenkari osoa izan dezaten, nahiz eta errentariaren kuota kenkaria osorik aprobetxatzeko nahikoa ez izan.

10. Etxebizitzen birgaitzea sustatzea eraginkortasun energetikoaren eta irisgarritasunean inbertsioak erraztuko dituzten kenkariak ezarrita, laguntza berezia emanaz diru-sarrera gutxiago dituzten pertsona eta familiei.
11. Sozietateen gaineko Zergan zerga-araubide berezia aplikatzea alokairua eta etxebizitzak eta bizilekuak erabiltzeko beste modu batzuk sustatzeko jardueretan.
12. Sozietateen gaineko Zergan alokairu eskuragarriko erregimeneko etxebizitza babestuen promozioak sustatzea, Eusko Jaurlaritzak horiekin hitzarmenak sinatuta dituenean.
13. Udal zergak arautzen dituzten foru arauak berrikustea, udalek jarraian zehazten diren neurrietarako aukera izan dezaten:
 - a. Ordenantza fiskalaren bidez hobari handiagoak ezartzea OHZn prezio mugatuak dituzten alokairuko etxebizitzetan.
 - b. Tasa progresibo bat ezartzea etxebizitza-mota energetikoaren arabera.
14. Autokontsumo energetikorako ekimenen eraketa fiskalki laguntzea, familia, ETE eta autonomoentzako pizgarri fiskalak ezarrita.
15. Arabako landagunean populazioa finkatzeko ezarritako zerga-pizgarriak berrikustea, batik bat, prezio eskuragarriko alokairu bidezko etxebizitzarako aukera eta alokairuan eskaintzeko eraikien birgaitzea eraginkorrago bultzatzeko. Eta baita negozioak jartzeko ere.

Iruzur fiskalaren kontrako borroka

Iruzur fiskala funtsezko elementua da zerga-politika hizpide dugunean. Ez dago zerga-sistema bidezkorik, ez bada iruzurraren eta zerga-saihestearen gaineko kontrol zorrotzik. Ezinbestekoa da erakundeen artean era koordinatuan aritzea, foru-ogasunen artean eta, oro bat, administrazio publikoen artean kolaboratzea iruzur fiskala hautemateko eta azalertzeko informazio-sistema hobetoak izatearren. Horretarako:

1. Fiskalaren aurka Borrokatzeko Urteko Plan Integrala
2. Iruzuraren aurka Borrokatzeko Urteko Planean garatutako jardueren ebaluazio-txosten bat argitaratuko dugu urtero.

3. Fakturazio elektronikorako sistemak hobetzen eta garatzen jarraituko dugu, eta sistemak hobetzen joango gara efizienteak izan daitezzen.
4. Administrazio publikoekin lankidetzan jardungo dugu administrazioen artean informazioa trukatzeko sistemak hobetzen eta sakontzen segitzeko.